

TOKIKOM

2014ko urtarrila | 133. zenbakia

aiKOR!

txorierriko aldizkaria

Antonio Rojo, luthierra

Stradivariren urratsen atzean



TXORIERRIKO IRAKASKUNTZA PUBLIKOA

KALITATE ONEKO IRAKASKUNTZA ETXETIK HUR



Larrabetzuko Herri Ikastetxea
Tel.: 944 558 172
Faxa: 944 558 172



Zamudioko Herri Ikastetxea
Tel.: 944 520 826
Faxa: 944 521 349



"Txorierrri" B.H.I. (Derio)
Tel.: 944 543 258
Faxa: 944 543 262



"Gorondagane"
Herri Ikastetxea (Sondika)
Tel.: 944 531 020
Faxa: 944 531 020



Derioko Herri Ikastetxea
Tel.: 944 541 246
Faxa: 944 541 246



Lezamako Herri Ikastetxea
Tel.: 944 55 119
Faxa: 944 555 163



MATRIKULA
Otsailaren 3tik 14ra (ikastetxeetan)
Otsailaren 3tik 13ra (on line)



Argitaratzailea: TOTOAN, Txorierriko Euskara Elkarteen Federazioa (Lagatzu, Zorritzetan, Arrekikili, Tximintx eta Altzora)
Tel.: 94 452 34 47
aikortxori@aikor.com / www.aikor.com

Zuzendaria: Xabier Goienetxe

Erredakzio burua: Itxaso Marina

Erredakzio taldea: Maite Lekerika, Gaizka Eguzkitza, Juan Luis Goikoetxea eta Aritz ta Nagel

Kolaboratzaileak: Iñaki Eguskizaga, Jasone Astola, Gaizka Peñafiel, Itsasne Zubiri, Joseba Apezetxea, Jose Angel Mentxaka, Bestorrene, Oihana Astobieta, Belen Gana eta Ines Serrano

Zuzentzaileak: Alberto Mtz. de la Cuadra, Iñaki Astorkiza eta Jagoba Zallo

Publizitatea: Arantza Atxutegi (686 58 92 38)

Banaketa: Egunon

Maketatzailea: Gaizka Eguzkitza

Inprimategia: Gertu

Ale kopurua: 7.000

Lege gordailua: BI 137-02 ISSN 1578-9322

Aikor! aldizkariak ez dau bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen edota eritxien erantzukizunik.



KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



diruz lagundutako aldizkaria



14 Ariane Apodaca



22 Pintxo-ibilbidea



24 Omenaldia Igor Urrutikoetxeari

- 4 Eritxia**
- 5 Laburrak eta albisteak**
- 11 Iruditan... Nora?**
- 12 Gurean izan da... Arkaitz Astiazaran, bidaiaria**
- 14 Gaztea eta... Ariane Apodaca, idazlea**
- 16 Txorierriko Zerbitzuen Mankomunitatea**
- 18 Antonio Rojo, luthier**
- 22 Pintxo-ibilbidea**
- 24 Omenaldia, Igor Urrutikoetxeari**
- 26 Haritz Petralanda, zamudioztarra**
- 28 Berbalagunen txokoa**
- 29 Zorionak!**
- 30 Beituk, 100 ale**
- 32 Osasuna... Homeoterapia Spagyrikoa**
- 34 Teknologia... Hiztegitxoak.eu**
- 35 Aikorrizketan... Lazkao Txiki**
- 36 Sukaldaritza**
- 37 Denborapasa**
- 38 Agenda**



Lortuko al dabe?

Aminek, 13 urteko umeak, Dakha Bangladesheko uriburutik zazpi kilometrora dagoan ehundegi baten egiten dau lan. Teilatua uralitazkoa izanda, eta hormak, txapazkoak, tailerrak laba bat dirudi eta haizea danean eztulka ibiltzen dira langileak, barruko hautsa altzaten dauelako. Bertako makinaren zaratagorria da eta Amini itantzen bajakoea tinpanoetarako babesik erabiltzen dauen, irribarre batez atzamarrez erantzun moduan bere oin ortozik erakusten dauz, gehien kezkatzen deusana lurrean dagozan orratzak dirala adierazteko. Aminek 11 ordu gitxienez lan egiten dau egunero, sei egun astean, eta eskaera handiak badira, horreek baino gehiago egiten ditu kobrau barik. Bere eguneko soldata 0,70 eurokoa da, baina bera pozik dago holan bere familiari laguntzen deusalak. Ehundegiko kapatazari itanduta zelan dan posible holako egoeran lan

egitea, berehala era garbian erantzuten dau: gure bezeroei, mundu osoan ezagunak diran marka enpresei, axola jakezan gauza bakarrik dira kalidadea, merkantzia emotearen data eta prezioa; ez langileen lan baldintzak.

Honen harira hemengo beharginen lan baldintzak okerrera doaz. Krisia hasi zenetik, 7.500 enpresa itxi dira, horreerikoz batzuk kanpora joateko, eta 140.000 langile gitxiago dagoz kotizaten, eta ia langabetu erdiek, gainera, ez dabe saririk jasotzen. Aurten, halaber, hegoaldeko 364.000 langile itun barik gelditu dira eta horren eragina zuzena, besteak beste, soldataren urripenak eta lan orduen gehitzea izango da.

Bien bitartean, urtarilaren hasieran ekonomiaz ari dan egunkari batek bainoan Wall Street-en inoizko irabazirik handienak lortzen ari dirala, "maximo historiakoak" aitatzen eban, eta badakigu Wall



IÑAKI EGUSKIZAGA
(Sondikoztarra)

Street-en Amerikako dirua bakarrik ez, hemengoa be han jokatzeko dala.

XV. mendeko *Berretterretzen kanthorriak* haltzei buruz inoan lez, diruak ez dau bihotzik, beti diru gehiagoren bila dabil.

Bada, etekinak etekin, honeek are handiagoak izango lirateke, hemengo langileen lan baldintzak Aminen antzekoak izango balira.

Lortuko al dabe?

Gaztelaraz hitz egiten dutenean, eta zoritxarrez sarri egiten dute, gure gazteen artean, aspalditik oso zabalduta dabilen erailera da. Bilboko ZINEBI jaialdian ematen ari ziren laburmetraia batean, esaterako, "*porque mis aitas no me dejaron...*" zioen aktoreetako batek.

Ezin dezaket sinetsi Euskal Herrian aita bat baino gehiago duen hainbeste ume dagoenik. Euskaraz berba egin beharrean, gaztelaraz egin eta zenbait hitz euskaraz erabiltzea nahi baino ohikoagoa da, baina erabiltzen dutena zuzen erabiliko balute, sikan. Hau da, "*Mi aita y mi ama dicen...*" edo "*Aita y ama dicen...*" eta mota horretakoak. Are gehiago, bigarren aukera lehenengoa baino egokiagoa, euskarari dagokionez, behintzat.

"Mis aitas dicen...", eta amak mutu, ala?



JASONE ASTOLA
(Irakaslea)

Euskaldunok ez baitugu etxekoan gainera jabetza adierazteko ohiturarik izan; izan ere, gaztelaniaren eraginez etorri zaigun moda berria da hori. Horrela, "Gurasoek esan didate" edo "Amak dio..." erabiliko dugu eta ez "Nire amak dio...". Posiboa erabiltzekotan, "Gure amak ..." edo "Joseba geureak ..." esango genuke.

Beraz, ea "*Mis aitas dicen...*" hori aita bat baino gehiago dutenen kasurako utzi eta "*Aita y ama dicen*" horretatik "Aitak eta amak diote" desiratura etortzeko gauza garen. Badakizue, ogi gogorrari, hagin zorrotza!

ERREKA
IAT **ETXEA**
LONDO

Eguneko menua, asteburuko menu berezia, karta, enpresen bazkariak, jaunartzeak, familien bazkariak

Arteaga, 80
Zamudio 48170 (Bizkaia)
Tfnoa: 94 452 14 19
Faxa: 94 452 26 29

Txinbo kalea, 9
48170 ZAMUDIO
94 452 26 75

BIDE-GORRI
CAFÉ-BAR

Askotariko pintxoak - Plater konbinatuak
8:00etatik irekia
WIFI gunea

AmAr
ileapaindegia

Asteartea-ostiralea:
9:00-19:00
Laburunbata:
8:00-13:30

Uribe plaza, 1 behea
Zamudio
94 4520419



Txorierritarren esku

a: Gaizka Peñafiel

"Gure esku dago" egitasmoa Euskal Herri mailan jarri da martxan, eta erabakitze eskubidea aldarrikatzea du helburu. Kanpaina Txorierrin ere sustatu da eta aurkezpen nagusia otsailaren 8an egingo da Lezaman. Sentsibiltate ezberdinak lagunak osatzen dute "Gure esku dago" herri ekimena, eta hori sentsibiltate ezberdinak lagunak dago zuzenduta. Egitasmoa joan den urteko ekainean aurkeztu zen Fikoba Irungo aretoan, eta, Txorierriko sustatzaileek azaldu diguten bezala, hiru ardatz edo ideia nagusi ditu:

"herri bat gara, erabakitzeko eskubidea dugu eta eskubide hori gauzatzea herritarren esku dago".

Egitasmoaren haritik giza kate bat osatuko da ekainaren 8an, Durango eta Iruña lotuko dituen. Ehun eta hogeita hiru kilometro guztira. "Txorierritarroi Uharte Arakilen kilometro bat betetzea dagokigu; 100. kilometroa, hain zuzen ere. Gutxienez, 400 lagun behar ditugu kilometroa osatzeko, baina zifra bikoiztea dugu erronkatzat. Ea 800 lagun joatea lortzen dugun!".

Kanpainaren sustatzaileak kontzientizazio lana egiten eta atxikimenduak lortzen dabilta gaur egun. "Giza katea lehe-

nengo urratsa izango da, eta jasotzen duen babesaren arabera, guztion artean erabakiko dugu nolako pausoei jarraituko diegun". Txorierrin dinamikak bultzatu dira herritarrek kontzientizatzeko eta atxikimenduak lortzeko. Hala, ekimena herri guztietan aurkeztu da, eta otsailaren 8rako aurkezpen nagusia antolatu da. Hori Lezamako pilotalekuan izango da arratsaldeko 7etan. Bertan, kanpainaren ildo nagusiak azalduko dira eta Txorierrin egin den bideoa ipiniko da. Horrezaz gainera, *Kanta zati bat* abestiaren estrofa batean oinarrituta mosaiko bat osatuko da, eta atxikimenduak batuko dira. Antolatzaileek espero dute bailaran eta bailaratik kanpo ere erreferenteak diren txorierritarrek ekitaldiarekin bat egitea.

GAMINIZ
JATETXEA

Tel/Fax: 944 317 025
email: gaminiz@gaminiz.com

Ibaizabal 212, Parke Teknologikoa
48170 Zamudio - Bizkaia
GPS: 2°51'41" W 43°17'37" N

www.gaminiz.com

Garmendia
ardoak

Pinea pol., P-3B
ZAMUDIO
Tel/Fax: 94 452 00 49

OPTIKA IKUSLAN

Arbolantxa kalea, 5, behe
ZAMUDIO
Tel.: 94 452 28 18

HORTZ KLINIKA

Idoia Zubieta

Ornatu-zentroa & Hortz-erretika
HORTZ-IMPLANTEAK - ORTUDUNTZIA ESTUDIOA
IMPLANTEAK ZINBULAK

Dr. Arloskalea, 11 - 1. esk. • 48011 BILBO • Telefonoz: 94 441 63 22
Urbiz plaza, 1 • 48170 ZAMUDIO • Telefonoz: 94 452 13 70

TALLERES JUAN ANDRES

AUTOMOBILAREN ELEKTRIZITATEA ETA MEKANIKA
PUNTUAN JARTZEA

Torreirragoiti ind., 8 - 216 Pab.
Tel.: 94 452 07 09

48170 ZAMUDIO (Bizkaia)

Abesbatzen Astea

Otsailean Bizkaiko Abesbatzen Astea egingo da 41. aldiz, Begoñako basilikan, eta gure abesbatzek bertan hartuko dute parte. Ipar-Alde Derioko abesbatzak, Txuma Olagüe Sondikako abesbatzak eta Ekidazu Lezamako abesbatzak otsailaren 11n egingo dute; eta Zamudioko Kamara Koralak, otsailaren 14an. Kontzertuak ilunzeko 8etan izango dira.

Ekitaldiak, Hori Bain

Hori Bai Larrabetzuko gazte-txeko kideek zenbait ekitaldi antolatu dituzte otsailerako. Otsailaren 2an, domekaz, Ping-pong txapelketa egingo da bertan. Lehenengo partidak 12:30ean jokatuko dira, eta finalerdia eta finala, 17:30ean. Izena emateko, euro bat ordaindu behar da. Beste alde batetik, otsailaren 7an, barikuz Larrabetzu Eskura aplikazioa aurkeztuko da 19:00etan, eta gauean kontzertuak egongo dira. Egurra ta Kitto eta Kruders taldeak igoko dira eszenatokira 22:00etatik aurrera. Sarrerak bost eurotan salduko dira, baina langabeek hiru euro baino ez dute ordaindu beharko.

Azkenik, kontzertuak ere antolatu dituzte otsailaren 23rako. Arrutiko Intxaurrak eta Mor More taldeek joko dute egun horretan. Kontzertuak 18:30ean hasiko dira.



Sondikoztar batek "Objetivo África" lehiaketa irabazi du

Jon Goikouria Larrabeiti Sondikako gazteak "Objetivo África" argazkilaritza lehiaketaren laugarren edizioa irabazi du. Jonen irudiak "Arazoak eta konponbidea, konketan bertan" du izena, eta Marokon, Chauen herriko kanpin batean, egin zuen 2009an. "Afrikak duen urik eza izan da lehiaketaren gaia eta nire argazkiak islatzen ditu arazoa eta konponbidea aldi berean, ezohiko ikuspuntu batetik", esan du Jonek. Gazteak 600 euroko saria jaso du. "Poz-pozik nago. Urteak eta urteak daramatzat argazkiak egiten, eta hori egi-teagatik saria jasotzea itzela da. Dirua inportantea da, noski, baina nire lanak

jaso duen esker ona hori baino askoz garrantzitsuagoa da niretzat".

Epai-mahaiak kontuan hartu ditu Jonen "argazkiaren goi-mailako teknika, osagaien sinbologia, konposizio simetrikoko eta erritmikoa, eta ordenaren eta desordenaren arteko dikotomia". Guztira, Europa, Afrika eta Ameriketako 200 lagunek hartu dute parte lehiaketan. Kanpo Arazoetako Espainiako Ministerioak, Kanarietako Gobernuak eta Las Palmas hiriko Udalak osatzen dute Casa Africa kultur elkartearen partzuergoa eta lehiaketa hori antolatzen du urtero, Afrikaren irudi ona zabaltzeko asmoz.

bai euskarari

Bai Euskarari Zuztagiria, zuztagiriaren elkartea, zuztagiriaren elkartea

zuztagiriaren elkartea

urrats biziak

Twitter, Facebook, and other social media icons.

Construcciones-Reformas
IÑIGO BARCENA
Igeltserotza orokorra

Arbolantxa kalea, 6 - 1. ezk.,
ZAMUDIO
Tel/Fax: 94 452 29 10
Móvil: 665 70 33 12

OSKARBI
fotografoak
JOSEBA APEZETXEA

TALLERIKALEA 3
48170 ZAMUDIO BIZKAIA
TEL: 944 520 014 / 607 400 078
E-mail: apeze@euskalnet.net

luz zamudio
ARGI APARATUAK

Nekazari kalea, 4 (Iorja) Tel./Faxa 94 452 11 60
48170 Zamudio - Bizkaia

Ala-apaindegia
M^a Antonia Llodio

Txoriako etorbidea, 6
Tel.: 94 452 02 70

48170 ZAMUDIO (Bizkaia)

Inauterien atarian

Inauteriak otsailean eta martxoan ospatuko dira gure herrietan. Alea itxi orduko, egi-tarau hauen berri izan dugu. Egon adi, hurrengo egunotan hitzordu gehiago jakinarazi-ko dira-eta.



Lezama

Lehiaketetan eta herri afarian izena ema-tea: otsailaren 24a baino lehen, liburute-gian.

Martxoak 1, zapatua

- 19:00: Artista eta moztorro lehiaketak.
 - 20:30: Areto-dantzen emanaldia.
 - 21:30: Herri afaria.
 - 22:30: Lehiaketetako sariak banatzea.
- Diskofesta.

Larrabetzu

Hori Bai gaztetxeak eta Guraso Elkar-teak antolatutik.

Otsailak 28, barikua

- 10:30: Umeen erakustaldiak, frontoian.
- 17:00: Musika eta animazioa, frontoian.
- 18:00: Txokolate-jana, frontoian.
- 19:30: Desfilea, Hori Bai gaztetxean.
- 21:30: Erromeria: Zirkinik bez. Hori Bai gaztetxean.

Derio

Otsailak 28, barikua

- 16:00: Umeentzako tailerrak, Guraso Elkar-tearen laguntzarekin, frontoian.
- 17:00: Pirritx, Porrotx eta Marimotots, kiroldegian. Gure señeak elkar-teak anto-laturik, Gaixotasun Arraroen Nazioarteko Eguna dela-eta.
- Ostean, txokolatada, kanpoko frontoian. Guraso Elkar-tearen laguntzarekin.
- Taberna Ibiltaria eta erromeria, Laino-mendi dantza taldearekin.



Loiu

Otsailak 22, zapatua, Larrondoko fron-toian

- 15:00: Herri bazkaria (futbol zelaian hartu behar dira txartelak)
- 16:00-20:00: Puzgarriak.
- 17:00: Kuadrilla arteko herri kirolak.
- 19:30: Desfilea.
- 21:00: Diskoteka.
- 22:00: Bingoa.
- 23:00: Diskoteka.

Otsailak 28, barikua, Zabaloetxeko frontoian

- 18:00: Haurren moztorro lehiaketa.
- 18:30: Animazioa eta txitxi-burruntzia.



Gizona gizonaren kontra

Urtarrilaren 12an, aurtengo lehen gizon proba egin zen Larrakoe-txe probalekuan. Han Erandiogoi-koko Gorka de la Concepciónek eta Iñigo Aurrekoetxea "Gotxa" derioztarrak hartu zuten parte. Gorka Bizkaiko txapelduna da 110 kiloko kategorian; eta Gotxa, Euskadiko eta Bizkaiko txapelduna 85 kilo baino gutxiagoko kategorian. Kirolariak 800 kiloko harri bana eraman zuten herrestan eta proba ahalik eta denbora-tarte laburrean iltze bi egitean zetzan. Parte-hartzaileak oso berdintsu ibili ziren, baina Gorka gailendu zen azkenean.

"Mikel Zarate" lehiaketa

Lezamako Udalak eta Elkar argitaletxeak "Mikel Zarate" Lehiaketa antolatu dute bosgarren aldiz. Haurrentzako irakurgai berriak sortzea eta idazleen lana bultzatzea ditu helburu nagusitzat. Lanak aurkezteko epea apirilaren 30ean amaituko da. Helbide honetara agindu behar ko dira: Lezamako Udala, Mikel Zarate Saria, Aretxalde 1, 48196 Lezama. Epaimahaiak beranduenez maiatzaren 31rako jakinaraziko du bere erabakia. Irabazleak 3.000 euro jasoko du saritzat eta Elkar etxeak argitara emango du bere lana. Lehiaketaren oinarriak Elkar-en blogean kontsulta daitezke: postdata.elkar.com



Ziklo-kross txapelketa, Lezaman

Aurreko urteotan bezala, Zorribike Lezamako elkarteak Euskadiko ziklo-kross txapelketa antolatu zuen abenduaren 29an. Antolatzaileek 2.700 metroko zirkuitua atondu zuten Lezaman. "Apu bat aldapatsua izan zen, eta zati handiena landakoa izan arren, txirrindulariek asfaltoan ere aritu behar izan zuten. Taldekideok oso pozik gara lasterketarekin, batez ere herriak, betiko moduan, gurekin bat egin zuelako eta izugarritzko laguntza eman zigulako. Hala ere, gero eta zailagoa da dirua lortzea lasterketa antolatzeko", esan digu Jose Manuel Olano Zorribike taldeko presidentek.

Lasterketaren irabazlea Aitor Hernández (Specialized-Garmin) ermuarra izan zen, eta bere atzean Javier Ruiz de Larrinaga (Zuiano C.C.-MMR-Spiuk) eta

Aketza Peña (Zallako Belodromo T.K.E.) ailegatu ziren helmugara. Halaber, emakumezkoen kategorian, Olatz Odriozola (Bizikleta.com C.D.C.) nagusitu zen, Maite Murgia (Ugeraga S.D.-Lointek) eta Eider Merinoren (Ugeraga S.D.-Lointek) aurretik. Gainontzeko kategoriei dagokienez, Jonathan Lastrak (Grupo Hirumet) irabazi zuen sub-23 mailan; Gotzon Martínek (Buruntzazpi Tx. Eskola) eta Yaiza Agirrek (Punta Galea T.E.), junior kategorian; Jokin Alberdik (Andoingo Tx. Eskola) eta Mireia Muñozek (Mendiz Mendi-Petronor), kadete kategorian; Juan José Romerok (Mendikute K.K.E.-Amil-Sasoi), Master 30 kategorian; Manuel Quintanilla (Ciclos Getxo XC), Master 40 kategorian; eta Jokin Mujikak (Loinaz T.E.), Master 50 kategorian.

Abelino Arraindegia

Gorbea kalea, 4 - 48160 DERIO
T: 94 602 75 25-6

yedra floristas

Mikel Zarate, 2 - 48150 Sondika - Bizkaia
Telefona: 94 453 14 57 - yedrainterflora@hotmail.com

**hotela
jatetxea
aretxarte**

Teknologi Parkea - Eraikuntza, 200
48170 ZAMUDIO - (BIZKAIA)
Telefona: 94 403 69 00
Faxa: 94 403 69 01
e-mail: hotel@aretxarte.com
e-mail: reservas@aretxarte.com
www.aretxarte.com

ADARVE KAFETEGIA

Gosariak
Plater konbinatuak
Pintxoak
GIRO ONA

Sollube, 2 DERIO Tel: 94 608 95 31

Arantza Amondarain Lasa
Ginekologoa

Txerri etorbidea, 9-4
41511, Irujoa
48100 Derio


Telefona eta faxa
94 404 44 50
a.amondarain@euskadiaz.net

Arbel digitalak, Zamudioko ikasgela guztietan

Arbel digitalak ezarri dira Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailetako ikasgeletan, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak bultzaturik aurrera eramane den "Eskola 2.0" egitasmoaren barruan. Pozik hartu dute neurria bai irakasleek, bai ikasleek, eta, neurri horren abantailak ikusita, Lehen Hezkuntzako ikasgela guztietan ezartzea erabaki dute Zamudioko eskolan. Era berean, arbel digital eramangarri bat hartu dute Haur Hezkuntzako ikasleentzat.

Irakasleek ahalegin handia egin dute arbel berrietara egokitzeko. Baina Belen Mellado eskolako zuzendariaren arabera, arbelok abantailak baino ez dizkiete ekarri. "Interakzioa sortzen da irakasle eta ikasleen artean. Lehen, ikasleei azalpenak emateko, eta zer esaten ari ginen ikus zezaten, liburua hartu eta horren orriak erakutsi behar genituen, ikasgela osoari begira geundela. Ez zen egokia, eta ikasleren bat galtzea ekar zezakeen. Orain, berriz, arbelean bertan ikus dezakete liburuan dutena, eta arazo barik jarraitu ahal diete azalpenei".

Ez da hori onura bakarra. Melladok azaldu digunez, edozein irakasgai eman daiteke arbel digitala erabiliz, eta, aldi berean leiho bat baino gehiago irekita eduki ahal izateaz gainera, edozein unetan sar daiteke Interneten informazio bila. Eskolak erakargarriagoak dira, eta talde lana bultzatzen da. "Aukera ematen



digu beste talde batzuek egin duten lana ikusteko, eta irakasleok graba dezakegu eskola, eta beste egunen batean berriro jarri". Informazioaren eta komunikazioaren teknologia (IKT) ikasgelan bertan indartzen dira, eta eskolan parte hartzea bultzatzen ditu ikasleak. "Askotariko baliabideak erabiltzen dira, eta, horren ondorioz, handiagoa da ulermen maila, errazagoak errepasoak. Arazoak dituzten ikasleentzat ere baditu abantailak, soi-

nuak erabil daitezkeelako edo handitu daitezkeelako letra-tamaina".

Hiru osagai ditu arbel digitalak: arbel zuri bat, ordenagailu bat eta proiektagailu bat. Arbeletarako errotuladoreak edo arkatx digitalak erabiliz idatz daiteke bertan. Arbela ohiko eran nahiz modu digitalan erabil daiteke. Arbel digitalak eskolako ikasgela guztietan ezartzeko inbertsioaren heren bi Zamudioko Guraso Elkarateak ordaindu du, eta bat, eskolak.



BIZKAIA IRRATIA **Txorierrin**

F.M. 102.6 Mhz

www.bizkaiairrátia.com



Mendizaletasuna argazkitan

Lezama Gailur mendi taldeak argazki lehiaketa antolatu du bigarren aldiz. Lehiaketan 18 urtetik gorako edozein bazkidek har dezake parte. Antolatzaileek kategoria bi bereizi dute: paisaiak eta erretratuak. Azkenei dagokienez, bana-koak zein taldekoak izan ahalko dira. Lehiaketara, taldeak 2014. urtean zehar antolatuko diren ekintzetan ateratako argazkiak aurkeztu beharko dira. Lanak formatu digitalekoak izan beharko dira, bai zuri-beltzean, bai koloretan. Neurriak parte-hartzaileak berak aukeratu ahalko ditu eta argazki bakarra agindu ahalko da bazkideko, kategoriako eta irteerako edo ekintzako.

Lanak mendi taldearen helbide elektronikora bidali beharko dira: gailurmt@euskaltel.net. Parte-hartzaileek datu hauek adierazi beharko dituzte: egilearen izen-abizenak, argazkia atera den ekintzaren data eta kategoria. Horrezaz gainera, mezuaren arrazoa zein den adierazi beharko da haren gaian. Lanak aurkezteko azken eguna abenduaren 15a izan-

go da, baina aukera egongo da argazkiak ekintza bakoitzaren ostean bidaltzeko, edo epea amaitu aurretik.

Kategoria bakoitzeko sari bi emango dira: 75 euroko opari-txeke bana irabazleentzat eta 50 euroko opari-txeke bana bigarren tokian lotzen direnentzat. Epaimahaiak urteko batzarrean parte hartu ohi duten zazpi bazkidek osatuko dute, ausaz aukeratuko direnak.

Mendi taldetik jakinarazi duten beazala, egitasmoak helburu bikoitza du: alde batetik, elkartearen argazki-artxibategia bultzatu, eguneratu eta sustatu; eta bestetik, bazkideei eragingarri bat eman, argazkien bidez mendi taldearen nondik norakoak, irteerak eta ekintzak isla ditzaten. "Azken batean, gure historia txikia da".

Ekintzak

Eta argazki-kamerarekin lanean has-teko, hiru irteera antolatu dituzte otsailera. Otsailaren 9an, ibilbidea egingo dute inguruko berdeguneetatik. Ibilbidea Deustun hasiko dute. Handik Artxandara

abiatuko dira, Avril menditik pasatuko dira, eta, Done Jakue bidearekin bat eginez, Lezaman amaituko dute. Bestalde, otsailaren 16an Lunadara (Burgos) joango dira elurraz gozatzeko. Hau bazkideentzako eta familientzako irteera da, eta bertan parte hartu nahi dutenek ahalik eta ari-nen eman behar dute izena. Azkenik, otsailaren 22an, Kantabriara egingo dute txangoa, Mozagroko mendigunera, hain zuzen ere.

Hitzordua goizeko 8:30ean ipini dute herriko plazan, lehenengo eta hirugarren irteeren kasuan; eta goizeko 9:30ean, Lezamako eskolan, elurretara joateko irteerari dagokionez. Irteerak doanekoak dira bazkideentzat eta guraso elkartekoentzat, baina bazkideak ez direnek 10 euro ordaindu beharko dute. Ekintzotan parte hartzeko, ezinbestekoa da elkartek mendi-ibilbideen eta ekintzen haritik duen informazio-baimena onartzea. Hori facebook-ean duten profilean eskura daiteke, edo lehen aipatutako helbide elektronikora mezu bat bidalita.

BAR RAFI
ESPEZIALITATEA: PINTXOAK
Rafael García Tejero
Oiz Kalea, 5 T: 94 406 08 08
48170 ZAMUDIO (Bizkaia) Mobila: 607 406 613

GOIZALDE
Peluleria
Estetika
94 455 81 44
Angulen 2. behea Larrabetzu-Bizkaia

FRUTAK BARAZKIAK
Produktu ekologikoak
Hainbat ogi eta pastel
Gaztelumendi, 3 - behea 48195 Larrabetzu 94 455 89 19



Nora?

Urtea hasi baino ez dugu egin. Zaharra atzean utzi eta berrirako prest. Nora eramango gaitu bideak?

Argazkia: Gaizka Peñafiel



SERVICIOS Y MEDIO AMBIENTE

Bide garbiketa | Hondakinak biltzea eta garraiatzea | Ur eta estolda-sareak zaintzea eta mantentzea | Hiri tresneria mantentzea eta zaintzea | Lorezaintza zerbitzua | Eraikinak eta lokalak barrutik garbitzea | Hondartzak garbitzea | Garbiguneak kudeatzea eta mantentzea | Lurzoruak deskontaminatzea | Ingurumen-aholkularitza | Beste zerbitzu batzuetarako, galdetu.

INBISA Derio Enpresa-zentroa
Astintze, 6A - 1. solairua. 48160 DERIO
www.inbisaserviciosymedioambiente.com

Tel. 94 424 38 34



**SARRIKOLA
OGITEGIA**

Euskal pastela
Basernko ogia
Bizkotxoak
Hainbat tarta



Sarrikola, z/g Larrabetzu
Tel.: 94 455 83 37
619 78 58 84

“Arreta jarritz gero, edozein tokik

t: Gaizka Eguzkitza / a: A. A.

Zein izan da momenturik onena eta txarrena?

Onena San Engrazia herrian izan zen, Zuberoan. Bidaia bukatzeko zorian nengoan eta oso lasai nenbilen, lan ikaragarria eginda nuelako: bidaia bera, grabaketa, argazkiak... Leku oso lasaia eta ikusgarria da. Beste alde batetik, egunik txarre-na euriak Nafarroan harrapatu gintuenean izan zen. Normalean euria egiten zue-nean, ez nintzen bizikletaz ibiltzen: alde batetik, bidaia disfrutatzeko egiten nenbilelako; eta bestetik, irudiak eta grabaketak euriarekin txarto ateratzen direlako. Baina egun haretan, nahiz eta euria egiteko arriskua egon, ateratzea erabaki nuen eta Goñiko bailaran harrapatu ninduen euri zaparradak. Lekua oso polita da, baina egun horretan disfrutatu baino, sufritu egin nuen.

Zein izan da gehien harritu zintuen lekua?

ARKAITZ ASTIAZARAN | abentura zalea

Arkaitz Astiazaran kirolaria eta abentura zalea da. Ezaugarri horiek abiapuntutzat hartuta, aurreko udaberrian bizikleta hartu zuen eta Euskal Herriko errepideetara atera zen, gure herriak dituen altxorrak ezagutu eta grabatzeko asmoz. Bere esperientzia batzen duen dokumentala *–Euskal Herriko altxorretan barrena–* Lezaman izan dugu ikusgai urtarrilean.

Izki Parke Naturala, Kanpezu inguruan, Araban. Ez da oso leku ezaguna baina ederra da, bai horixe.

Gure orografia oso aldapatsua da. Fisikoki ez da gogorregia bizikletaz egiteko?

Bai, beti gora eta behera ibili behar duzu. Agian, salbuespena Erriberan dugu. Uste baino aldapa gogorragoak topatu nituen. Baina horrek paisaia ezberdinak ikusteko aukera eman zidan, baita monotonía apurtzeko ere. Eta sasoian jartzeko erarik onena ere izan zen (kar, kar).

Nolako planifikazioa egin zenuen? Erabat itxita zenuen dena?

Bidaia ezagutzen nituen lekuen arabera antolatu nuen: lehenik eta behin, Gipuzkoa, nire ingurukoa; gero Bizkaia, Araba, Nafarroa eta Iparraldea.

Nolakoa zen egun arrunt bat bidaian?



du xarma"



Normalean 7:30-8:00etan esnatzen nintzen. Bokatak eta freskagarriak prestatzen nituen, baita grabazioak egiteko ekipoa ere. Gosalduta eta gero, errepidera. Normalean etapa bakoitzean 100-130 kilometro egiten nituen. Arratsalderako ailegatzeko nintzen aterpera, bertan gaua emateko. Arratsaldean hurrengo eguneko plangintza prestatzen nuen. Etapekin bitartean, atsedenak hartzen nituen batzuetan.

Abentura osoa duzu gordeta, argazkiak eta grabaketak egin zenitue-lako...

Ibilbide gehiena bakarrik egin nuen eta nik neuk egin nituen argazkiak eta grabaketak. Hala ere, etapa batzuetan lagun batzuk etorri ziren nirekin eta lagundu egin zidaten. Grabaketak-eta helburu bikoitza du: alde batetik, nire esperientzia eta horren atzean dagoen lan neketsua betiko gordetzea eta jendearekin erakustea; eta bestetik, dokumentalak eta eman ahal ditudan hitzaldiak lagunduko didate abentura ordaintzeko. Dagoeneko 30 saio egin ditut eta gehiago egitea gustatuko litzaidake. Jendea pozik ateratzen da, erakusten dieldalako bidaiatzeko beste era bat, merkea eta polita. Ni prest nago edozein tokitara joateko: euskaltegi-tara, kultur aretoetara.... Gainera aurreko liburua ere argitaratu nahi dut.

Beste abentura bat duzu buruan?

Ez dakit. Oso neketsua izan da bidaiak, bai fisikoki, hainbat kilometro izan zirela-

Bidaia luzea

Arkaitz duela 30 urte jaio zen Gipuzkoan, Lasturen, Deban. "Betidanik izan naiz kirolaria (bizikleta, mendia...) eta beti gustatu zait toki ezberdinak ezagutzea. Euskal Herrian zehar egindako bidaia urte askotako esperientzien ondorioa izan da. Leku oso politak ditugu Euskal Herrian, baina jendeak ez ditu haiek ezagutzen. Bestalde, erronka jarri nahi nion neure buruari eta leku zoragarri horiek guztiak lotu eta bidaia luze bat egitea erabaki nuen". Guztira, 800 herri bisitatu, 175 mendate igo, eta 4.000 kilometro egin ditu Arkaitzek Euskal Herriko itzuli honetan.

"Hitzaldiak nabil ematen eta bertan erakusten dut bidaiatzeko beste era bat, merkea eta polita"

"Mendian ibili nahi dut orain, eta bertan disfrutatu, lana izango ez balitz moduan"

ko, bai psikologikoki, plangintza oso serioa izan zelako eta izugarrizko konpromisoa eskatu zidalako. Egin dudako bidaia gehiagorik momentuz ez dut buruan, baina mendian ibili nahi dut, eta bertan disfrutatu, lana izango ez balitz moduan. Ildo horri jarraituz, mendiko lasterketetan hartzen dut parte eta bide honetatik jarraituko nahi dut epe laburrean.

Zer esango zenieke bidaiariei, gomentiorik aipatuko zenieke?

Nik esango nuke arreta jarri gero, edozein tokik duela xarma. Adibidez, nik uste nuen Nafarroako Erriberako paisaia aspergarria izango zela, baina oso polita iruditu zitzaidan.

RPM
MAYORISTAS INFORMATICOS
ENPRESETARAKO INFORMATIKA
SAREEN MANTENIMENDUA
ZERBITZU TEKNIKOA
Avda. Pinoa 2C Nave 5 - 48170 - Zamudio
Tel: 944521544 - <http://www.rpmmayoristas.com>

RUBEN
ERLOJU-DENDA BITXITEGIA
Lehendakari Leizaola plaza, 3
48170 Zamudio
94 452 14 49

ZAMUDIO MOTOR IDENTICA
94 452 1616
94 452 1624
Pol. Torrelagoliti
Pab. 6, Bloque 3
48170 ZAMUDIO
BIZKAIA
ESPEZIALITATEA:
TXAPA ETA PINTURA

AM
FORMACION Y TRADUCCIONES
INGLES ESKOLA
www.am-formacion.com
Garaioitza 120 D
48196 LEZAMA
T: 94 455 64 69
info@am-formacion.com
Erremerterri 16
48150 SONDICA
T: 94 453 64 08

LOTERIA LEZAMA
BONOLOTA
LOTERIA PRIMITIBOA
1-X-2
SARITZARRA
EUROMILIOIAK
GABONETAKO ETA ERREGETAKO
LOTERIEN ENKRESERBAK
ZERBITZUA, ENPREZENTZAT,
TABERNENTZAT, ETAB
ARRETXALDE, 159 • 48196 LEZAMA (BIZKAIA) • TELEFONOA/TAX: 94 455 64 87

48196 LEZAMA Bizkaia
Calle de la Cruz, 36
S.A.T. LEGU
SERVICIOS DE LIMPIEZA Y DESINFECCION
F: 94 455 64 17
T: 94 455 61 98

“Emakumeek indar handia dute istorio epiko honetan”

t/a: Itxaso Marina

ARIANE APODACA LÓPEZ | idazlea

Laburbildu, mesedez, liburuaren korapiloa.

Erreferentzia bat izatearren, istorioa Erdi Aroan koka daiteke. Bertan “Mundu ezagunean” dauden erresumen arteko harremanak eta botere-borroka azaltzen ditut. “Mundu ezagunean” sei erresuma daude eta erregetariko bat hiltzen denean, bere ondorengoa azpijokoekin hasten da guztiak menderatzeko.

Eta zelako papera dute *dreiek* eszenatoki horretan?

*Dreia*k jaingo-jainkosen eta gizakien arteko bitartekariak dira, eta, pertsonaia nagusiak ez diren arren, oso garrantzitsuak dira istorioaren korapilorako, haiek erabakitzen dutelako zein izen jarri behar zaion ume bakoitzari. Eta liburuari neska-to baten jaiotzak ematen dio hasiera... Zer gertatzen den jakiteko, liburua irakurri behar.

Eleberri epikoa da, bereziki gustatzen zaizun generoa?

Egia esan, *Eratzunen jauna* da irakurri dudana genero honetako liburu bakarra. Baina pelikula asko ditut ikusita. Zinegidoiko masterra egin nuen Edinburgon eta gidoi bat idazteko eskatu ziguten, master-bukaerako proiektu moduan. Istorio hau urteetan eduki dut buruan bueltak eta idaztea erabaki nuen.

Zelan bihurtu zen gidioa eleberri?

Masterreko irakasleak zinegintzan aritu diren profesionalak dira, eta haien iritzia eta aholkua kontuan hartzekoak dira. Bere ezaugarriak kontuan hartuta, anbizio handiko proiektua zela adierazi zidaten eta nik galdetu nien ea, haien ustez, eleberri bihurtu ahal zen. Baietz erantzun zidaten eta aurrera egitera animatu nintzen.

Kostatu da?

Bai, orduak sartu ditut, eta hiruzpalau zirriborro idatzi ere bai. Lehenengo eta behin, gidioa ingelesetik gaztelaniara itzuli behar izan nuen; eta gero, prosara moldatu. Prosan, arreta handiagoa ipini

El designio de las Dreias trilogia bateko lehen liburua da. Ariane Apodaca López zamudioztarrak idatzi du bera. Gaztearen lehenengo eleberria ere bada eta berarekin izan gara egitasmoaren gainean solasean. Bigarren emanaldia lantzen dabilela esan digu.



facebook.com/eldesigniodelasdreias

behar da deskribapenetan eta detailetan, eta prozesua luzeagoa da. Lehen esan bezala, istorioa urteetan eduki dut buruan, beraz, oso ondo ezagutzen nuen; hala ere, idaztera eseri nintzenean, hori beste gauza bat izan zen... Baina, tira, pixkanaka-pixkanaka ateratzen joan zen.

Laguntzarik eduki duzu?

Gurasoak eta ahizpa ibili dira nik idatzitakoa irakurtzen, eta haien iritzia ematen, iradokizunak egiten... Eta inspirazio-iturria Tolkien-en eleberrian eta generoko filmetan izan dut.

Eleberria abenduan ipini da salgai, pozik?

Oso pozik, irakurri dutenei gustatu zaielako. Hamasei urtetik gorako edozein laguni zuzendutako liburua da. Eskuratu nahi duenak facebooken bitartez jar dai-teke nirekin harremanetan.

Zer nabarmenduko zenuke zure eleberrian?

Generoko beste lan batzuekin alderatuta, *El designio de las Dreias* liburuan emakumeek indar handia dutela. Normalean printzesak dira, norbaiten emazteak... baina nire liburuan korapiloaren

Egilea

Ariane 1985. urtean jaio zen eta Zamudiokoa da. Ikus-entzunezko komunikazioan dago lizentziatuta eta, gidoigintzari lotutako ikasketetatik aparte, zine-gidoiko masterra egin zuen Edinburgh Napier Unibertsitatean. Horrezaz gainera, kontakizun laburrak eta olerkiak argitaratu ditu ingelesez Erresuma Batuan eta kazetari ibili da Euskadin eta Ipar Irlandan.

parte aktiboa dira eta oso paper garrantzitsua dute.

Zeuk editatu duzu, zergatik?

Urtebete eman dut liburua idazten, eta, bukatu nuenean, erabaki nuen luzaroan erantzun baten zain ez nuela nahi egon. Eta, gainera, erantzuna ezezkoa bazen, beste argitaletxe bat topatzeko prozesuari berriro ekin. Horregatik liburua neuk editatzea pentsatu nuen. Kaleratutako liburuak salduko nituena ziur nengo-

en; badakizue, familia, lagunak eta lagunen lagunak... Eta gero, zortetik bazegoen eta jendeari gustatzen bazitzaion, ale gehiago atera ahal nituela pentsatu nuen, ahoz ahokoa ere inportantea delako.

Zelan baloratzen duzu esperientzia?

Lan handia da banaketaren eta sustapenaren ardura zeuk hartu behar duzula, baina, azken batean, zure proiektuaren aldeko apustua egitea da. Ni oso pozik nago. Gainera, oso pozgarria da liburua norbaiti saltzea eta bere e-mail bat jasotzea gustatu zaiola esanez... Hori ezin da ordaindu.

Gomendatuko zenukeen esperientzia da, beraz.

Zalantza barik. Baten batek liburu bat kaleratu nahi badu, nik animatuko nuke autoedizioarekin saiatzera.

Zelan ikusten duzu etorkizuna?

Txiki-txikia nintzenetik nahi izan dut idatzi, eta gustatuko litzaidake idazten jarraitu ahal izatea, eta literaturatik bizi izatea. Baina korapilatsua da... Momentuz trilogiaren bigarren liburua idazten nabil eta espero dut azarorako bukatuta izatea.

*“Oso pozgarria da
liburua norbaiti
saltzea eta bere e-mail
bat jasotzea gustatu
zaiola esanez”*

*“Liburua neuk
editatu dut eta
esperientzia
gomendagarria
izan da”*

*“Hurrego emanaldia
azarorako
bukatuta izatea
espero dut”*



**Hemen prestakuntzak
lana dakar berarekin**

POLITEKNIKA IKASTEGIA
TXORIERRI
S.COOP.
Centro de Educación Secundaria y Formación Profesional
Larbide Heziketa eta Bigarren Heziketarako Ikastetxea

Untzaga Ibaia, Kalea, 1 | Tel.: 94 403 40 60 | info@txorierri.net
48160 - DEIRO | Fax: 94 403 40 61 | www.txorierri.net

Eusko Jaurlaritzak diruz-lagundutako ikastetxea

BATXILERGOA
• Zientziak eta Teknologia

ERDI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK
• Mekanizatua

GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK
• Fabrikazio Mekanikoko Diseinua
• Ekoizpenaren Programazioa
• Automatizazioa eta Robotika Industrial
• Telekomunikazio eta Informatika Sistemak
• Salmenten eta Merkataritza Esparruen Kudeaketa
• Ingurumen Hezkuntza eta Kontrola

2014ko aurrekontua


Txorierriko Zerbitzuen Mankomunitateko aurrekontuaren barruan hauek daude: Mankomunitatearen beraren aurrekontua, “Txorierriko Udal Euskaltegia” erakunde autonomoarena, eta “Behargintza Txorierri, S.L.” sozietatearena.

MANKOMUNITATEA

Aurrekontua 7.225.567,02 eurokoa da (% 100) eta bai gastuak, bai diru-sarrerak daude haren barne. Gastuak:

408.748,86 euro (5,66%)	LANGILEEN GASTUAK
6.486.234,37 euro (89,77%)	ONDASUN ARRUNTEN ETA ZERBITZUEN GASTUAK
4.849.941,28 euro	–Hondakinak biltzea eta tratatzea (zarama, paper-kartoia, altzariak, beira, etxetresna elektriko txikiak, arropa, olioak, ontziak, organikoak...) –Argiteria publikoa
1.021.770,16 euro	–Etxez etxeko laguntza zerbitzua –EISE: Gizartean eta Hezkuntzan esku-hartzeko taldea (familia-hezitzaileen zerbitzua) –SEDIM: Adingabeentzako eta Familientzako Arreta Psikologikoko Zerbitzua –Esku-hartze Komunitarioko Zerbitzua (osasuna sustatzea, eta biztanleriaren bizi-kalitatea eta gizarte ongizatea hobetzea ditu helburu)
219.126,77 euro	Euskarazko ekintzak, Berbalagun, trebatzailea, kirola euskaraz
84.791,74 euro	Gazteria zerbitzua
62.252,43 euro	Berdintasuna
107.418,70 euro	Beste batzuk: helduentzako heziketa, abandonatutako txakurrak batzea, desfibriladoreak, artxiboak eta abar
321.083,79 euro (4,44%)	TRANSFERENTZIA ARRUNTAK (Behargintzari egindako ekarpena, euskara ikasteko bekak, gizarte-larrialdietarako laguntzak, Gurutze Gorriarekin egindako hitzarmena...)
9.500,00 euro (% 0,13)	INBERTSIO ERREALAK

Aurrekontuaren finantzazioa:





Udalen finantzazioa:

	DERIO	LARRABETZU	LEZAMA	LOIU	SONDIKA	ZAMUDIO
LANGILEEN GASTUAK: 203.850,10 euro	57.485,73 euro	20.242,31 euro	24.176,62 euro	24.543,56 euro	45.010,10 euro	32.391,78 euro
ONDASUN ARRUNTEN ETA ZERBITZUEN GASTUAK: 5.878.156,73 euro	1.525.794,87 euro	468.760,38 euro	565.105,26 euro	884.346,53 euro	1.259.618,64 euro	1.174.531,05 euro
TRANSFERENTZIA ARRUNTAK: 211.604,29 euro	59.672,41 euro	21.012,30 euro	25.096,27 euro	25.477,16 euro	46.722,23 euro	33.623,92 euro
INBERTSIO ERREALAK: 9.500,00 euro	2.679,00 euro	943,35 euro	1.126,70 euro	1.143,80 euro	2.097,60 euro	1.509,55 euro
GUZTIRA: 6.303.111,12 euro	1.645.632,01 euro	510.958,34 euro	615.504,85 euro	935.511,05 euro	1.353.448,57 euro	1.242.056,30 euro

BEHARGINTZA TXORIERRI


Aurrekontua 599.511,89 eurokoa da, eta haren barruan bai gastuak, bai diru-sarrerak daude.

–2014ko ekitaldirako gastuaren aurrekontua % 7,45 igo da, aurreko ekitaldikoaren aldean.

–Mankomunitateak iaz egindako ekarpen bera egin du aurten. Beste diru-sarreraren kopurua, berriz, ia % 10 da handiagoa, 2013koarekin alderatzen bada.

–Behargintzak langileak kontratatuko ditu aurten, Eskualdeko Enplegu-planaren haritik. Ondorioz, langileen gastuak handiagoak izango dira.

Aurrekontuaren finantzazioa




EGF: Europako Gizarte Fonda
TP: Tokiko Planak
EJ: Eusko Jaurlaritza
BFA: Bizkaiko Foru Aldundia


UDAL EUSKALTEGIA

Aurrekontua 625.174,55 eurokoa da, eta barruan gastuak zein diru-sarrerak daude. Udalek herri bakoitzean errolatuta dauden ikasle-kopuruaren arabera egiten dute ekarpena.

Aurrekontuaren finantzazioa



Udalen finantzazioa



Artisau pazienta

ANTONIO ROJO | luthierra

Luthierrek hari-instrumentuak egin, konpondu eta tonuan jartzen dituzte. Oso lan zehatza eta konplexua da. Ogibidea Europan ez da hain arraroa, baina Estatuko eskola bakarra Bilbon dago. Eta Lezaman mota honetako artisau bat daukagu: Antonio Rojo.





t: Gaizka Eguzkitza / a: Joseba Apezetxea

Antioniok 57 urte ditu. Duela urte bi, aurre-erretiroa eman zioten eta horrek astitsu ibiltzea ekarri zion. Esku-lanak betidanik gustatu zaizkio eta egun batean luthiergintzari buruzko erreportaje bat ikusi zuen telebistan. "Horixe egin nahi dut", esan zion bere buruari. Luthier hasi baino lehen, egurrezko itsasontziak eta hegazkinak zituen eginda, baina tira, ez da gauza bera. Informazioa eta heziketa nahi zituen, eta Bilboko Artisautza Azokatik zebilela, Luis Artola luthier profesionalarekin egin zuen topo. "Han lehenengo

harremana landu genuen, baina gero bere tailerrera joan nintzen, Getxora. Bere atzean ibili nintzen; hasieran liburuak utzi zizkidan, baina azkenean, niri eskola ematea onartu zuen (kar, kar)", dio Antoniok txantxetan.

Luis Artolak luthier egiten du lan eta bera izan zen Juan Crisostomo de Arriaga Bilboko kontserbatorioak duen luthierren eskolako sortzaileetako bat. Maisu ederra, bai horixe. "Gaur egun beste lagun bat ere etortzen da nirekin Luisen tailerrera, Javi. Koadrila polita osatu dugu eta esperientziak trukatzeko ditugu. Aholkuak eta laguntza ematen dizkiogu elkarri eta hori

guztia oso aberasgarria da, batez ere gutretzat, ikasleontzat, baina baita maisua-
rentzat ere. Izan ere, koadrilakoak gauza berriak egiten saiatzen gara, esperimentuak-eta, eta lortzen duguna, Luisek erabili egiten du eskolan".

Antioniok bere kabuz ikasi du, ekina-
ren ekinez, eta Luisen aholkularitzapean, baina luthiergintza oso arte konplexu eta garestia da. "Maisuari esker diru gutxiago gastatu dut tresnak erosten, baina denak du prezio altua: bernizak Italiatik ekarri behar ditugu eta pote txiki batek 150 euro balio du; egurrari dagokionez, maila ezberdinak daude, baina batzuek bestez biolina egiteko erdi-mailako egur zati batek 150 euro balio du, eta goi-mailakoak, 500 euro. Eta haria ere garestia da". Dagoeneko biolin bi bukatu ditu Antioniok eta soilik materiala erosten 2.000 euro gastatu behar izan du.

Inbertsioa txikiagoa izateko, behin baino gehiagotan Antioniok berak landu ditu osagaiak. "Tresna batzuk nik neuk egin ditut, nire beharrianetara egokitu-ta. Nik metal arloan egiten nuen lan eta lanabesak metalezkoak dira. Beraz, arazorik ez, niretzat. Beste alde batetik, bernizak ere egin ditugu. Stradivari XVIII. mendeko luthier ospetsuak egiten zituen moduan guk geuk egin ditugu. Beste luthier batzuek geure bernizak probatu dituzte eta esan digute Italiako bernizen antzekoak direla. Oso pozgarria izan zen hori entzutea".

Antionioren lan-eskarmetua metal arloan oso lagungarria izan da bere bo-



Stressless®
besaulki bat irabazi
Urtarrila eta otsailean egindako
erosketen artean zozketatuko duguna.

SUITE DELUX
DESKANTSURAKO MARKA BEREZITUAK
Derio · Seminarioan bertan, beheko solairuan · 944 545 147
www.suitdelux.com

PLAN
RENOBed
SUIT DELUX

kazio berrian. "Luthierren lana oso teknikoa da. Neurriak zehatz-zehatzak izan behar dira eta materialak ezagutu behar dira: egurrak, adibidez, gogorra baina malgua izan behar du. Horrela, erresonantzia polita izango du eta hariak egiten duten presioa (30 kilo) jasateko gauza izango da. Enpresa aditu batzuek lantzen dute musika-tresnei zuzendutako egurra, eta kontuan izan behar da nondik datozen, zelan dagoen moztuta... Esate baterako, Astigar kizkurra eta Alemaniako izeia dira onenak. Izeia oso gogorra, malgua eta arina da. Astigarra oso polita da eta erresonantzia polita eragiten du. Egurra Alemania, Austria, Errumania eta Italiako iparraldean dago".

Zaletasuna

Antoniok pasioz hitz egiten du luthierren lanari buruz. "Nik ez dut ogibidetzat hartzen; niretzat zaletasuna baino ez da, baina egia esan, primeran pasatzen dut soinu-tresnak egiten. Tailerra garajeko txoko batean daukat eta han orduak eta orduak ematen ditut, musika entzuten eta zura lantzen. Poz-pozik nabil". Denbora eta pazientzia oso garrantzitsuak dira lan honetan. "Biolinak oso hauskorak dira eta kontu handiz ibili behar da. Lanaz gozatu behar duzu, baina inolako presarik gabe. Erlojuari begira bazaude, seinale txarra! Batzuetan hiru egun ematen dituzu detaille txiki bat egiteko: zura landu, dena ondo neurtu... Geure lana apur bat bohemioa da, presarik gabekoa, eta xehetasun txikiak zaindu behar ditugu".



Antonio Rojok egin dituen biolin biak semeei oparituko dizkiela pentsatu du. Baina hori egin baino lehen, kontserbatoriora eroango ditu, bertako musikariek soinu-tresnok probatzeko. "Guretzat oso baliogarria da biolin-joleen iritzia, tresnak behar den moduan jotzen duen ala ez jakiteko. Dena dela, biolin berria izan arren, beti ajustatu behar da, eta hori lu-

thier batek egin behar du. Biolina zenbat eta gehiago erabili, orduan eta hobeto jotzen du. Biolina gitarra baino apur bat konplexuagoa da: oporretan musikari batzuek biolina eramaten diote luthierari, horrek egunero erabiltzeko eta biolinak bere soinua ez galtzeko. Eta bide batez, luthierrek apainketak egin ahal dizkio tresnari".



Metaleko langilea

Antonioren gurasoak Extremadurakoak dira eta bera jaioberria zela Euskal Herrira etorri ziren. "Lauzpa-bost urte beranduago, Txorierrira etorri ginen bizitera. Ez naiz euskalduna eta apur bat lotsa ematen dit euskara ez jakiteak... Betidanik bizi izan naiz Lezaman: Bixentekuane baserrian hazi nintzen, gero Kurtzera ezkondu nintzen eta azken 15 urteotan Aretxalden bizi naiz, elizaren aurrean". Lanari dagokionez ere bada inguruan ibilia. "Hasi nintzen Zamudioko gasolindegia alboa zegoen enpresa batean; geroago, Torrelarragoitin; eta 25 urte nituela beste enpresa batera joan nintzen. Beti metal arloan aritu naiz, eta horretan denetarik egin dut: galdaragintza, tornua... Lanean beti ikasten ibili behar izan dut. Hala ere, krisia dela-eta hori itxi egin zen eta aurre-erretiroa eman zidaten".

Biolina hari-instrumentuen familiaren tresnarik txikiena da, eta Antoniok laster egingo dio aurre hurrengo urratsari: biola bat egin nahi du eta ondoren, ziurrenik, txelo bat. Hala ere, txeloa handiegia eta garestiegia da eta baliteke koadrilakoekin batera egitea. "Soilik txelo bat egiteko egurrak 900 euro balio du. Egunen batean gitarra egitea ere gustatuko litzaidake".

"Luthierren lana oso teknikoa da. Neurriak zehatz-zehatzak izan behar dira"

"Lanaz gozatu behar duzu, baina inolako presarik gabe. Erlojuari begira bazaude, seinale txarra!"

"Nahiko nuke musikari batek esatea neuk egindako biolinak izugarri jotzen duela"

Antoniok biolinak-eta egiten jarraitzen badu, musika-tresnak pilatuko zaizkio etxean. Hori ekiditeko, bere maisuari eman beharko dizkio instrumentuak, kontserbatorioko ikasleei saltzeko. "Dena dela, nire asmoa ez da dirua irabaztea, zaletasuna lantzea baizik".

Soinu-tresnak egiteaz gain, luthierren lanaren beste aldea instrumentuak kon-

pontzea da, eta horretan ere jardun du Antoniok. "Konpontzea beste erronka mota bat da, zirraragarria, inprobisatu egin behar duzulako askotan. Dena dela, nik nahiago dut hasiera-hasieratik eraiki, biolina bukatzen duzunean zeurea delako. Konponketek ardura handiagoa dakarte: zer gertatzen da asmatzen ez baduzu? Edo huts egiten baduzu?".

Orain arte Antoniok bere kabuz egin du lan, enkargurik jaso ez duelako, baina ez litzaioke agindupean lan egitea axola izango. "Niretzat beste urrats bat izango litzateke. Nahiko nuke musikari batek esatea neuk egindako biolin batek izugarri jotzen duela. Nik uste dut nire biolinek itxura dotorea dutela, baina batzuetan zalantzak ditut, benetan ez dakidalako biolinek ondo edo txarto jotzen duten".

Enkarguz Samuel Zygmantovich munduko luthierrik ospetsuenetarikoa batek egiten du lan. Estatubatuarrak hiru biolin egiten ditu urtean, eta bakoitzak 40.000 euro balio du. Zygmantovich Bilbora etorri zen mintegi bat ematera eta Antonio bertan egon zen. "Izugarria izan zen: bera erresonantzia da aditua, eta teknika berriei buruz hitz egin zigun". Antoniok ez du asmo handirik, ez du Samuel Zygmantovich bezalako artisau handia izateko grinarik, baina gogor egiten du lan Stradivari XVIII. mendean perfektionatu zuen artearen aprendiz duina izateko. Beharbada ez dugu ikusiko, baina bere biolinek ozenki zabalduko dituzte lau haizeetara Antonioren pasioa eta trebetasuna.





Bidegorri taberna: ogi zati txigortua piperrekin (gorriak zein berdeak), legatz fresko eta ganba arrautzeztatuekin.

t/a: Gaizka Eguzkitza

Lezaman eman diogu hasiera pintxo ibilbideari. Bertan, **Goiko tabernan** "bakailao hostopila pil-pilean, baserriko arrautza galdarraztatuekin eta piperrekin" jan dugu. Gainera, hegaluze-ogitarteko txikiak, eskuz moztutako pernila, hainbat tortilla eta bertan egindako txerri-azalak dastatzeko zorian ere egon gara. Hau gutxi balitz, asteburuetan itsaskia eskaintzen dutela esan digute. Errepidearen beste aldean **Lejarrene jatetxea** dugu. Han "bakailao eta onddoen orriak otarrainxkekin, pil-pil saltsan, eta berakatzekin, ogi txigortuaren gainean" dastatu dugu. Horretaz aparte, etxeko txorizoa, bakailaoz eta onddoez betetako piperrak, perretxikoen salteatua eta kokotxak zituzten barra gainean.

Autoa hartu eta Zamudiorantz abiatu gara. Bertako tabernetan, batez ere langileentzako gosariak prestatzen dituzte eta pintxoak handitxoak dira. **Ama3 tabernan**, esate baterako, txahal-hanburgesa txikia hartu dugu. Haragiari osagai sekretua botatzen diote, eta, gainera, pintxo honek tomatea, kipula erregosia, letxuga eta gazta ere badaramatza. Asteburuetan, mokadu txikiagoak prestatzen dituzte: gildak, olagarroa, izokina... **Rafi tabernan** patata-tortilla urdaiazpiko eta gaztarekin da etxeko espezialitatea. Baina tabernak barra oparoa du, hainbat ogitarteko txiki, hala nola hirugiharra, gazta eta piperrak, oilasko-bularkia, solomoa, sandwich begetala, hegaluzea... Azkenik, **Bidegorri taberna** bisitatu dugu. Mahaietan, bezeroak sandwichak, plater konbinatuak eta anoak dabilta dastatzen, baina guk barran hartu dugu zerbait. Gildak, pernileneko edo hegaluzezko ogitarteko txikiak alde batera utzita, itxura polita duen pin-



Adarve kafetegia: ogi zati baten gainean tomate, berenjena eta kalabazin arrautzeztatuak, eta barazkien artean, pernil iberikoa eta ahuntz-gazta. Horien guztien gainean, mertxika-marmelada.

txo bat hartu dugu: ogi zati txigortua, piperrekin (gorriak zein berdeak), legatz fresko eta ganba arrautzeztatuekin.

Oraindik bagara gose, eta Deriorako bidea hartu dugu. Udaletxearen aurrean **Adarve kafetegia** dago. Kafetegia izatea ez da kasualitatea, goi-mailako kafea eskaintzen dutelako. Barrari begiratu diogunean, 13 tortilla mota, olagarroa eta sandwichak ikusi ditugu, baina batez ere mokadu batek erakarri egin gaitu: ogi zati baten gainean tomate, berenjena eta kalabazin arrautzeztatuak, eta barazkien artean, pernil iberikoa eta ahuntz-gazta. Eta horien guztien gainean, mertxika-marmelada. Ondoren, **lazi jatetxean** pin-



Lejarrene jatetxea: bakailao eta onddoen orriak otarrainxkekin, pil-pil saltsan, eta berakatzekin, ogi txigortuaren gainean.

Pintxotan ibili gara

Gure tabernek mokadu ederrak eskaintzen dizkigute. Eta guk dastatu egin ditugu



Amaiketako taberna: txipiroi plantxan ziza eta kipula karamelatuarekin.

txo zoragarri bat jan dugu: txerri-azpizuna foierekin, kipula karamelatuarekin, krokanti glaseatuarekin eta pernil iberikoarekin. Eta hori guztia ogi zati txigortu baten gainean. Beste pintxo batzuek ere itxura ederra dute: tortillak, sandwichak, kruasanak, bakailao brickak, kalabazin arrautzeztatua tomatearekin...

Goizeko 11:00ak dira, eta hamaiketako non eta **Amaiketako tabernan** hartu dugu, zelan ez! Aukera zabala dute bertan: tortillak, itsaski-bexamelez betetako kalabazinak, tomate arrautzeztatua txaka, porru eta urdaiazpikoko entsaladarekin... Oilasko erreak ere egiten dituzte Amaiketakon. Guk txipiroia plantxan ziza eta ki-



lazi jatetxea: txerri-azpizuna foierekin, kipula karamelatuarekin, krokanti glaseatua-
rekin eta pernil iberikoarekin. Eta hori guztia ogi zati txigortu baten gainean.



Goiko taberna: bakailao hosto-
pila pil-pilean baserriko arrautza
galdarraztatu eta piperrekin.



Rafi taberna: Patata-tortilla urdaiazpiko eta gaztare-
kin.



Eleizalde kafetegia: arrautza egosiaz, hegaluze eta
tomatez egindako sandwicha.



Ama3 taberna: txahal-hanburgesa, tomate, kipula
erregosi, letxuga eta gaztarekin.

Txorierrin, non?

–Goiko taberna (Bolaleku):

Garaioitza, 1 (Lezama).

–Lejarrene jatetxea:

Garaioitza, 102 (Lezama).

–Ama3 taberna:

Leizaola plaza, 7 (Zamudio).

–Bidegorri taberna:

Txinbo, 9 (Zamudio).

–Rafi taberna:

Oiz, 5 (Zamudio).

–Adarve kafetegia:

Sollube, 2 (Derio).

–Amaietako taberna:

Unbe, 1 (Derio).

–Eleizalde kafetegia:

Lainomendi, 7 (Derio).

–lazi jatetxea:

Jata, 2 (Derio).

–Aurregoiti jatetxea:

Lauroeta etorbidea, 27 (Loiu).

pula karamelatuarekin hautatu dugu... Eta bete-betean asmatu. Derioko azken txan-
pa Aldekonen egin dugu, **Eleizalde kafe-
tegian**, San Isidro elizaren aurrean. Hara
jendea batez ere gosaltzera hurbiltzen da,
eta tortillak eta sandwichen artean, guk
arrautza egosiaz, hegaluze eta tomatez
egindako sandwicha dastatu dugu. Igan-
deetan gildak ere egiten dituzte.

Gure ibilbidea Loiu bukatu da,
Aurregoiti jatetxean. Bertan raba zora-
garriak hartu ditugu, jai-egun guztietan
bezalaxe. Etxe-etxeok dira eta sukaldar-
iak esan digun moduan, Leioa edo
Bilbotik ere etortzen dira haiek dastatzera.
Hau tripakada, ase-ase eginda gaude!



Aurregoiti jatetxea: etxeok rabak.

Omenaldi hunkigarria, Igor Urrut



Lezamako frontoia txiki gelditu zen urtarrilaren 18an. Ehunaka lagun batu ziren bertan Igor Urrutikoetxeari omenaldi beroa eta hunkigarria eskaintzeko. Ekitaldian senideek hartu zuten parte, lagunek, Munduko Federazio Sindikalaren (MFS) delegatuak, Fernando Barrena Sortuko bozeramaileak, Ainhoa Etxaide LAB sindikatuko idazkari nagusiak eta sindikatuaren kideak. Evaristo abeslariak ere hitz batzuk izan zituen lezamarrarentzat, eta Karlos Kristobal presoak kartzelatik idatzitako lerro batzuk irakurri ziren.

Sentimenduak agerian izan ziren ekitaldi osoan zehar. Parte-hartzaileek Igo-
rrek sindikatu arloan, Euskal Herri mailan zein mundu mailan, egindako lana azpimarratu zuten. Baita politika arloan eta brigadista moduan izandako ibilbidea ere. Baina batez ere Igor pertsona moduan ekarri zuten gogora, Etxaidek adierazi zuen bezala, semea, mutil-laguna, neba, osaba eta laguna zelako. Bestalde, CTB Brasilgo sindikatuaren delegatuak esan zuen moduan, "Igor Urrutikoetxeari egin ahal zaion omenaldirik onena langileen alde lan egiten jarraitzea da". Hitzalditxo bakoitzaren ostean, parte-hartzaileek kartoi bana hartu eta guztien artean collage bat osatu zuten, lezamarraren lana, borroka eta pentsaera islatzen zituena.

Ekidazu Lezamako abesbatzak *Xalbadorren heriotzean* kanta abestu zuen, eta frontoian bildutakoek *Eusko gudariak* kanta eta *Internazionala* himnoa. Txalo zapa-



ikoetxeari



rrada handiak amaiera eman zion ekitaldiari.

Igor Urrutikoetxea Lezaman jaio zen orain dela 38 urte. LAB sindikatuko nazioarteko arloaren arduraduna izan zen 2008. urteaz geroztik, sindikatuaren zuzendaritza-batzordeko kidea ere bazen eta MFSko mundu-kontseiluko kidea. LAB sindikatuaren, lege-arloan eman zituen lehenengo urratsak, eta horren ostean Hego Uribeko eskualdeko arduraduna izan zen. Sindikatuaren metal arloko ardura-dun ibili zen lau urtean, nazioarteko idazkaritzan egon baino lehen. Azaroan hil zen Brasilen, istripu baten ondorioz.



sarrerren salmenta
antzerkiaren salmenta
www.bbk.es
bbk

BFA DFB
Antzerkiaren Federazioa
Deustuko Antzerkiaren Federazioa

SONDIKAKO KULTUR ETXEA
 Cestero kalea, 1 (elizaren atzean)
 Telefonoa 94.453.64.13

SARRERAK AURRETIK EROSTEKO: TXARTELDEGIAN
Edozein ekintza hasi baino ordu bat lehenago

ANTZERKIA

EL TIPO DE LA TUMBA DE AL LADO

TXALO PRODUCCIONES

Komedia
(Gaztelaniaz)
Otsailak 15, 20:00
Prezioa: 10 €

ZINEA

 CAMINANDO ENTRE DINOSAURIOS 88' AG Otsailak 1, 18:00 (2D) Otsailak 2, 17:00 (3D)	 LA LADRONA DE LIBROS 131' EG-7 (2D) Otsailak 1, 20:30 Otsailak 2, 19:30	 LOS PITUFOS 2 105' AG Otsailak 8, 18:00 (2D) Otsailak 9, 17:00 (3D)
 AL ENCUENTRO DE MR. BANKS 126' EG-7 (2D) Otsailak 8, 20:30 Otsailak 9, 19:30	 AVIONES 92' AG (2D) Otsailak 16, 17:00	 EL LOBO DE WAL STREET 179' EG-16 (2D) Otsailak 16, 19:30
 LA LEGO PELICULA AG Otsailak 22, 18:00 (2D) Otsailak 23, 17:00 (3D)	 LA GRAN ESTAFA AMERICANA 138' (2D) Otsailak 22, 20:30 Otsailak 23, 19:30	

*informa: produktorearen baliar-izamen arabera programazioak aldaketak jasun ditzake

"Ondo goaz, aurrerantz"

HARITZ PETRALANDA | Zamudioko gaztea

Joan dan urteko urrian hasierea emon jakon 40 gazte independentistaren aurkako epaiketeari. Gazteei Segi erakundeagaz loturea izatea leporatzen deusee, eta, ondorioz, erakunde armatuagaz. Hareetako baktxarentzat, sei urteko espetxe-zigorra eskatu da. Haritz Petralanda zamudioztarra gazte horreen artean dago.

t/a: Itxaso Marina

Zein izan da zuk egindako beharra?

Politikoa. Bai Zamudio mailan, bai Txorierrri mailan. Bestalde, txikitatik herriko talde askotan hartu dot parte: dantza taldean, Bertokon, Gazte Asanbladan, Arroeta mendi taldean, jai-batzordean... Konpromiso bat dot herri honekiko, gurasoengandik ikasitakoa, eta beti egin dot behar herriaren alde. Gabezia batzuk ikusten nitualako, zelango herria gura neban argi nebalako, eta hori lortzeko, lan egin behar dalako, zure denporea eskaini.

Zertan oinarritzen da akusazioa?

Gure jardurearen segimentuan; hau da, nogaz edo zein erakundegaz edo alkartegaz batzartu garen, prentsaurrekoren baten parte hartu dogun, beste ekitaldiren baten... Ez dau sentidurik. Hori bada terrorista izatea? Argi dago epaiketa honek ez dauela oinarri juridikorik, politikoa baizik. Epaitzen dabilzanak gure ideak dira.

Epaiketea urtarrilean bertan amaituko da, eta, esan deusueenaren arabera, baliteke epaia martxorako edo apirilerako jakinarazotea. Zer espero dozu?

Batek daki zer gerta daitekean, lehen esan dodan moduan, hau epaiketa politi-

ko bat dalako. Estaduari ez jako gagozan konponbide-garai hau gustetan, ez jako interesaten, eta gutariko batzuk kartzelaratzea aukerea izan daiteke egoereari beste kolpe bat emoteko. Sorpresak izaten dira, baina ez dogu espero epaia gure aldekoa izatea, eta are gitxiago azken hilabeteetako gertakariak kontuan hartuta. Beno, hori irakurketa negatiboa da...

Irakurketa positiborik egiten dozu, bada?

Bai, epaiketak berak eta gaur egungo egoerak ekarri deuskuezan alkartasuna eta animoak, bai Euskal Herrian, bai Estaduko hainbat lekutan. Barrura goazen ala ez, hori beste kontu bat da; guk azpimarratu gura dogu Euskal Herriak esan dauela nahikoa dala, eta danok batera behar egiteko eta aurrera joateko unea dala. Eta guk horretan lagundu badogu, ba, pozik goaz barrura, harro egindako beharraz.

Epaiketea hasi zanetik hilabeteen lauzpabost aldiz joan behar zarie Madrilerara. Zelango eragina dau horrek zuen egunerokotasunean?

Gutariko batzuk lanean gabilz eta beste batzuk ikasleak dira. Jakina, zure jardurea eten egiten da; nik, esate baterako, lanean hasi baino lehen jakinarazo neban zein zan nire egoerea, badaezpa-



dan. Bertan ditugun gastuak be kontuan hartu behar dira, gure boltsikotik ordaintzen ditugulako. "Libre, epaiketa politikorik ez" egitasmotik laguntzen deuskue horregaz, ekitaldiak antolatzen dira gastuakaz laguntzeko.

2009. urteko azaroan atxilotu zinuezan. Hogeta bost urte zenduzan, eta hainbat proiektu, suposatzen dogu. Zelan aldatu jatzu bizitzea?

Lo nengoan eta txirrira jo eben. Polizia zala esan eben eta *bale, badatoz, gertatu da* pentsau neban. Eta ahalegintzen zara egoereari aurre egiten. Inkomunikauta emoten dituzun hiru egunak ez dagoz zure esku; eurek dabe egoeraren kontrola. Eta kartzelara eroango zaituztela esaten deusueanean lasaitua sentiduten da. Kartzelan zagoz eta egoera barrira moldatu behar zara. Familia eta lagunak dituzu buruan, noski, baina kan-

Amaiketako
info@amaiketako.com

EGUNEKO MENUAK
MENU BEREZIAK (este-buruetan)
PLATER KOMBINATUAK
SANDWICHAK
HAMBURGESA
OLATKO-EBREAK

94 655 68 92
Urtxio kalea, 1 • 48100 DEUSTO

GALAISA
Estetika eta ile-apaindegia
94 453 04 85 - 94 471 10 51

Etengabe
ordutegia

Sabino Arana 1-3. SONDIRA

IRATXO
gozotegia

berta personalizatutako
trufak
bolak
pastelak
pastak

Mikel Zarate, 2-3, Louja • Sondika, 48150 • 94 643 89 10



*"Konpromiso bat
dot herri honekiko
eta herriaren
alde egin dot
beti behar"*

**Epaiketan, oso momentu hunkigarria bizi izan zenduen tratu txarren inguruko deklarazioa egin zendue-
nean. Zuk ipinitako salaketearen hari-
tik zabaldutako prozesuari igaz emon
eutsan amaiera Auzitegi Nagusiak,
proba nahikorik ez egoala argudiatuz.**

Egia esan, ez dozu espero euren alde-
tik oso ikerketa sakona egotea. Izatez,
salaketearen haritik nik ez dot inon dekla-
rau, eta inork ez deust galdetu. Egin
dodan deklarazio bakarra espetxean
izan zan. Euren ikerketea egingo eben,
baina nigaz ez dabe berba egin.

**Gauza asko gertatu dira azken hila-
beteotan: Herriraren aurkako operazi-
noa, EPPKren adierazpena, presoen
bitartekariak atxilotzea, Bilboko mani-
festazioa... Zelako balorazioa egiten
dozu?**

Pausuak emoten gabiltz Euskal He-
rrian. Konponbide garaia da eta horretan
egin behar da behar. Halanda be, argi
ikusten da Estatuak ez daukala ezer kon-
pontzeko interesik. Nire ustez, gu ondo
goaz, aurrerantz, eta Estatuak gero eta
arrazoï gitxiago dau. Urtarrilaren 11ko
manifestazioa legez kanpo ixteagaz au-
rrekoetan egon ez dan erantzun bat iza-
tea lortu eben, eta jentetza handiak egin
eban bat ondoren antolatu zan manis-
tazioagaz. Lehen esan dodan moduan,
konponbide garaia da eta hausnarketea
egin behar da hainbat gairen gainean,
eta konponbideak topau.

poko gauzetan lar ez pentsetea erabagi-
ten dozu, eta zure eguneroko errutinea
sortzen dozu: kirola egin, irakurri, idatzi...
Halan izan zan nire kasuan, behintzat.
Egia da zure bizitzea eten egiten dala,
baina aurrera jarraitu behar da.

**Kartzelan, urtebete eta hilabete bi
emon zenduzan, gitxi gorabehera. Go-
gorra izan zan barriro kanpokoagaz
topetea?**

Halakorik esatea gogora iruditu daite-
kean arren, hurrengo egunean kaleratu-
ko ninduela jakinarazo eustenean, nik
egun horretan egiteko nituan gauzak
nituan gogoan. Eta pentsau neban, *ba ez
dakit ondo jatordan...* Izan be, zuk zure
eskemea dozu buruan, egoera batera
ohitu zara, arau batzuetara, erritmo bate-
ra... eta badator beste aldaketa bat.
Kalean dana da azkarragoa eta erritmo
horretara moldatu behar zara barriro.

Gainera, bizi izan dozun guztiaz kontura-
tzen hasten zara, eta, ondo zagozala esa-
ten dozun arren, badakizu ez zagozala
ondo, zure ingurukoekiko dozun jarrerea
ez dalako normala... *Beno, hau bizi izan
dot pentsaten dozu, ezin dot ahaztu, eta,
gainera, ez dot ahaztu gura.* Eta gertatuta-
koagaz bizi behar dozu.

**Baliteke barriro kartzelara sartu
behar izatea, bost urte inguruko zigo-
rra betetea. Gogorragoa, orain?**

Bai. Alde batetik, aurrekoan hara
beste batzuek eroan zaituelako, eta orain
epai batek zigortuta, zeure kabuz aurkez-
tu behar dozulako bertan. Bestetik, kale-
an egon zaran bitartean zure bizitzeagaz
jarraitu dozulako, zure planakaz... Egia
esan, ez dot asko pentsau horretan, eta
ez dot pentsau gura. Ez da erraza asimila-
ten... Baina aurre egingo deusagu, bada-
kigu familia eta lagunak hor ditugula.


Izpilen
PARAFARMAZIA BELAR-DENDA
Sabino Arana, 3 Ionia - 48150 SONDIKA (Bizkaia)
94 655 80 00 - 689 99 88 43 - izpilen@gmail.com


Sabin Askolizaga
Aseguru agentzia
Allianz
609 475 746
Mibane, 6 beheko
48150 Sondika-Bizkaia
T: 94 453 18 07
Fax: 94 453 60 27


HARATEGIA + URDAITEGIA
VICTOR
ARTISAU ELABORAZIOA
Okela ekolizten dugu:
odolosteak, txorizoa,
txistorra, solomak...
Plater aurrekoizatu
Goiri, 4 - 48150
Sondika - Bizkaia
94 453 16 17



Egun bat parkean

Baina ez parke arrunt batean; ez. Suhiltzaile-parkean baizik. Eta primeran pasatu genuen, umeek zein nagusiok. Hain ondo, ezen bisita errepikatzeko ideia bueltaka baitugu burutik.

Gabonetako atarian geunden –bai, urrun ditugu dagoeneko– eta seme-alabak etxean edukiko genituen. Beraz, zerbait asmatu behar genuen umeak ez aspertzeko, eta guk berbalagun egitasmoarekin aurrera jarraitu ahal izateko. Asko pentsatu ostean, Derioko suhiltzaile-parkea bisitatzea pentsatu genuen, umei eta familiei zuzendutako ekintzak egiten zituztela jakin bagenekielako. Eta hara deitu genuen, eta hitzordua abenduaren amaierarako ipini genuen. Umeak zein gurasoak, irrikan.

Eguna ailegatu zen. Eta parkera ailegatu bezain laster kaskoa eta uniformeak jantzi genituen eta suhiltzailearenak egiten hasi ginen. Eurek gidatuta, noski. Kamioia atera zuten eta buelta bat eman ziguten parkearen instalazioetatik. Gauzak beste perspektiba batetik ikusten dira hara igota. Hori bai emozioa!

Kamioak dituen zatiak eta ekipamendua ere erakutsi zizkiguten, eta eskailera-

ra –edo hobeto esanda, plataforma jaso-gailura– igo ginen. Gora eta gora. Hori zorabioa! Tutu malguarekin ere ausartu ginen eta, zelan joan zen ikusita, nik esango nuke gutariko baten batek bizitza suhiltzaile moduan atera lezakeela. Tutu malguaz gainera, haien lanerako erabiltzen dituzten beste tramankuluak eta erremintak ere erakutsi zizkiguten. Eta barratik jaitsi ginen, gozamina umeentzat! Larrialdi batetik bestera bitartean duten denbora zelan pasatzen duten ere esan ziguten, kirola egiten, sukaldatzen...

Makinaria martxan

Oso ekintza interesgarria eta didaktikoa izan zen eta aukera izan genuen suhiltzaileen lana zuzenean ezagutzeko. Beno, ez pentsa haiekin atera ginela sute bat itzaltzera, baina halako kasuetan zelan egiten duten azaldu ziguten, hartu behar dituzten segurtasun-neurriak eta abarrekoak. Aholku batzuk ere eman ziz-

kiguten eta etxean suterik sortuz gero, zelan itzali behar dugun esan ziguten; eta sutea oso handia bada, zeintzuk diren jarraitu beharreko pausoak.

Pozik baino pozago atera ginen suhiltzaile-parketik, izandako esperientzia hizpide genuela. Eta hori errepikatu behar genuela atera genuen ondorio. Era berean, martxan jarri genuen makinaria berriro eta otsailerako zer antolatzea hasi ginen pentsatzen. Ba, sagardotegi sasoari eman zaio hasiera eta, beraz, ez dugu zail izan. Axpe Markinako sagardotegira joango gara otsailaren 22an AEK euskaltegikoekin batera. Izena ematea otsailaren 18a baino lehen egin behar da. Eta artea gustatzen zaigunez, Bilboko Arte Ederren Museora ere joango gara Markus Lüpertz alemaniarren lana ezagutzera. Oraingo honetan, umeak etxean utzi behar.



ZORIONAK!



Zorionak Ainho! Ia datorren urterako ikusmena hobetzen dan beste gauza batzuen artean! Moxo handi bat. s&s



Zorionak Begoña Iriarte Goienetxea, neure bihotzeko amuma galanta! Eskerrik asko danagaitik! Askok gutzut!



BIDALI ZURE ARGAZKIAK

- Argazki txikia: 15 euro
- Argazki handia: 25 euro

Aikor! lagunentzat %20ko deskontua

Argazkia eta testua:

- Hilaren 15a baino lehen agindu
- aikortxori@aikor.com helbidera

Hurbila, derioztarrena

Egoerak merezi zuen, eta joan den hilabeteen ospatu zuen *Beitu* aldizkariaren argitaratzaileak, DerioKOMunikazio elkarteak, 100. alea kaleratu izana. Zarata handirik gabe, baina harro eta pozik hamar urtean eginiko lanagatik. Hitzaldi bat eta solasaldi bat antolatu zituzten, eta arloren batean edo bestean nabarmendu diren lagunak gonbidatu zituzten bertan parte hartzera. “Dena dela, zenbaki potolo bat ez, ale bakoitza ospatzea da, gure ustez, garrantzitsuena. Hurrengo alea ona izan dadila; baita haren ondoren datorrena ere”.

Herriak bilakaera handia izan du azken urteotan. Baditu biztanle gehiago, eraikin gehiago altxatu dira, elkarte berriak sortu dira kultura eta kirol arloan... Horren guztiaren lekukoa izateaz gainera, herriarekin batera egin du *Beitu* aldizkariak ere bere bilakaera. “Egunez egun, zenbakiz zenbaki lan eginez, Derio orain den herria izatea ahalbidetu duten herritarrekin eta taldeekin soinez soin”.

Aldizkariaren itxura ere aldatu da denboraren poderioz. Adierazi digutenez, *Beitu* egitasmo on-line bat izan zen hasiera batean, “baina ohiko kazetaritza egiteko aukera etorri zen: aldizkari bat hilero kaleratzea eta derioztarrei informazio erabilgarria eta hurbila eskaintzea”. Formatuari dagokionez, irakurterraza iza-

Abenduan, 100. alea kaleratu zuen *Beitu* Derioko udal aldizkariak. Ehun ale eta hamar urte derioztarrei herriko albisteak, pertsonaiak eta elkarteen lana hurbilarazten. Fernando Lorenzo da aldizkariaren zuzendaria; Juanma Perez, diseinatzailea; eta Tara, koordinatzailea. Egitasmoaren filosofia eta ildo nagusiak azaldu dizkigute.



teari eman diote lehentasuna: tolestu behar zen formatua utzi, eta beste formatu erabilgarriago eta erosoago batera pasatu dira. Euskaraz zein gaztelaniaz eskaintzen dute informazioa. “Herritarrek eska-

tu digutenaren arabera joan gara urratsak egiten. Hurrengo urratsa blog bat sortzea da, urtarrilean bertan egongo dena martxan”.

Tokikoa, ezinbestekoa

Bloga www.beituderio.net webgunean dago, eta hantxe eskegiko dute hilero aldizkaria PDFn. Hemeroteka bat ere ipiniko dute, kaleratutako ale guztiak bilduko dituen, eta aurreratuko dituzte papezko edizioan argitaratuko diren albisteak eta artikulua. “Nahi dugu herritarrek bide bat izatea beren iritzi, kritika eta iradokizunak adierazteko, eta konta diezaguten zer gertatzen ari den haien inguruan. Erreminta erabilgarria izango da bai kazetariontzat bai herritarrentzat”.

Mundu globalean ezinbestekoa da tokiko informazioa. “Herri komunikabideok barik, jendeak ez luke jakingo beraren inguruan gertatzen denaren % 10 ere. Eta



“Zenbaki potolo bat ez, ale bakoitza ospatzea da garrantzitsuena”

Blog bat sortu dute, eta herritarrek beren iritziak eta albisteak zabaltzeko ahal izango dituzte bertan

ez gara udaletik zabaltzen den informazioaz bakarrik ari; herritarrek eta kirolnahiz kultura-elkarteek egiten duten lanaz ere ari gara. Uste dugu, gainera, herri komunikabideok zabaldu ez ezik aintzatsi ere egin behar dugula lan hori, elkarrekin egiten dituztelako herriak; eta herriek, elkarrekin. Kontuan harturik zein den Derion hilero sortzen den albiste kopurua, aldizkaria txiki gelditzen dela aitortu digute. "Maiztasun handiagoa izan ahal izango luketen komunikabideak gara, baina pozten gara albisteak hilero heltzen direlako herritarrengana".

Herritarrek eskertzen duten lana da hori. Irakurle eta aldizkariaren artean *feedback* handia dagoela adierazi digute DerioKOMunikaziotik. "Zerbait idatzi eta jendea ados ez badago, berehala sortzen da eztabaida, euren iritzia ematen digute, testu berriak edo osagarriak idatzi behar dira askotan gai berari buruz...". Elkarriketatuak zein gaiak asko zaintzen dituztela esan digute, ahalegina egiten dutela egiazko informazioa eskaintzeko. "Herritarrek estimatzen dute behar hori guztia, batez ere Deriora orain dela gutxi etorri direnek, jakin-mina dutelako".

Oreka

"Egokitu edo hil", dio esaerak eta halaxe egin du *Beitu* aldizkariak denboraren poderioz bizirik irauteko. Eta krisiaren kolpeei eusteko. "Nolanahi ere, gure profesionalak dira gure armarik onena. Aldizkarian kazetari handiak aritu dira, eta geure burua birziklatzen jarraitzen dugu, kazetaritza ona egiteko. Ahaleginean jarraitzen dugu egiazko informazioa emateko, bisualki atsegina, eta teknologia berrietara egokitzeko". Nahitaezkoztat jotzen dute oreka bat sortzea udal informazioaren eta herritarrek sortzen duten informazioaren artean. "Beharrezkoa da derioztarrek jakitea *Beitu* komunikabide zabal bat dela. Berton dena da eztabaidagarria; ez dago taburik. Helburua derioztarrari informazio erabilgarria ematea da". Eta herritarra da, hain zuzen ere, euren informazio-iturri nagusia; derioztarra eta kalea.

Orri asko idatzi dituzte 10 urtean; albiste, elkarriketa eta erreportaje asko. Zaila da pertsonaia edo talde bakar bat aipatzea, guztiek utzi dutelako beren arrastoa aldizkaria egiten dutenengan. "Luxu eta zorte handia da Derio egunero

egiten duten guztiak pasatu izana aldizkaritik". Banaka batzuk gogora ekartzearen, Ibon Marley komikiko pertsonaia aipatu dute, beste mundu batzuk eman dizkiena ezagutuz; Gure señeak elkarrekin bilakaera; "Ezagutu Derio" atala, zeinetan hainbat gauza deskubritu baitute herriari buruz... "Oso pozgarria izan zen Udalak Aiertza basoaren jabetza eskuratu zuela argitaratzea. Txorierrin dugun baso autoktono bakarra da hura". Datozen urteetan nolako berriak ematea gustatuko litzaiekeen ere argi dute. "Alderdi politikoen artean adostasun handiagoa izatea, kulturarako laguntza gehiago izatea, aireporturako garraioa egotea... Askok dira".



LEANDRO LANDETA

HARAGITEGIA-URDAITEGIA
Oiz Kalea, 1 • Tel. 94 452 00 69 • 48170 ZAMUDIO

GORBEIA MERTZERIA

Gorbeia kalea, 7
ZAMUDIO
94 655 00 06

LIBURUDENDA PAPERDENDA

ZAMUDIO

Gorbeia kalea, 5
Telefono / Fax: 94 452 29 10 • 48170 ZAMUDIO (Bizkaia)

TXORIERRI MARMOLDEGIA

Sukalde eta bainugeletako harriak
Fatxadak • Atariak • Hilerriak

Torrelarragoiti ind., 7 B.P. - 2. nabea
48170 Zamudio (Bizkaia)
T./F.: 94 608 01 41-2

lezama
consultorio veterinario
albaitaritza klinika
www.consultorioveterinariolezama.com

J.R. Galdona Madariaga
BI-515

Medikuntza orokorra
Txertaketak
Parasitoak hil
Mikrotxipa
Kirurgia
EKG
Analisiak
Ospitalizazioa
Ekografiak

servicio de urgencias 24h

94 455 56 19 Aretxalde, 21bis • 48196 Lezama

t: Itxaso Marina

Argi itxi deusku ez dela medikuntza alternatiboa, Mendebaldeko medikuntza tradizionalan ditualako zuztarrak. "Hippokratesagaz sortu zan, kristinautasuna baino bost mende lehenago". Grezia Zaharreko medikuaren arabera, metodo bi baziran jentea osatzeko. Aurkarien medikuntzea zan bata. "Hau da, nekaturik bagagoz, atseden hartzea; hotz bagara, erropea janzea...". Eta bestea, antzekoen metodoa. "Substantzia batek gaixotasunik sortzen badau, substantzia hori, dosi txikietan erabiliz, gaixotasuna osatzeko gauza izango da. Indarra emoten deusko gorputzari, zuzendu beharrekoa zuzendu daian". Juan Carlos Aviles medikua Hippokratesen bigarren teoria horretan oinarritu zan, eta Homeoterapia Spagyrikoa sortu eban.

"Energia bat daukagu bizidun guztiok, esentzia bat, baina beste zati bat be badaukagu, toxikoa dana. Toxiko horrek sortzen dau gaixotasuna", azaldu deusku Karmelek. "Landarek be badaukez esentzia bat eta toxiko bat, eta Spagyriak banandu egiten ditu bata eta bestea, eta esentzia bakarrik daukan botikea sortzen dau". Besteak beste, landareak, gatz bioinorganikoak eta metalak erabiltzen dira botikak egiteko. Gorputzak onartzeko moduko dosi txikietan hartzen dira halakoak. "Medikuntza konbentzionaleko botikek askoz dosi handiagoak daukiez eta gorputzak oso lan handia egin behar dau, hareek txikitzeo eta, era horretan, onartu ahal izateko". Homeoterapia Spagyrikoan erabilitako botikak egiteko, hamabi hilabeteko prozesu bat garatu behar da, denpora tarte hori emoten dalako toxikoa landaretatik edo gatzetik kentzeko.

Hasikeran aitaturiko hiru atalak (gorputza, pentsamentuak eta emozinoak) alkarri eragiten ibiltzen dira denpora guztian, eta, bat txarto badago, gaixotasuna



Gorputzetik harago

Gizakiok ez gara gorputza bakarrik, osotasun bat gara. Gorputza ez ezik, pentsamentuak eta emozinoak be badira osotasun horren parte. Hori da, hain zuzen, Homeoterapia Spagyrikoaren oinarria. Karmele Aurrekoetxea aditua da medikuntza mota horretan, eta argibideak emon deuskuz hori guztia hobeto ezagutzeko.

sortu leike. "Esaterako, sabeleko minak hasarrea ekarri leikizu; eta hasarre edo estresauta egoteak, sabeleko mina". Gaixotasuna aitatu dogu, baina, egia esateko, Homeoterapia Spagyrikoaren arabera, ez dago gaixotasunik, persona gaixoak baino. "Bakotxak bere erara eroaten dauelako gaixotasuna, eta ondorioz modu indibidualean tratatu behar dalako".

Esan beharra dago, halan be, Homeoterapia Spagyrikoa erabiltzen dabenak ez dagozala medikuntza konbentzionalaren

aurka. Onartzen ditue haren aurrerapean, eta biak bateragarriak izan leitekeela uste dabe. "Batzuetan ezinbestekoa da medikuntza konbentzionalaren tratamenduak hartzea, eta Spagyriak lagundu ahal izango deusku halako tratamentuek ixten deuskuen pozoia gorputzetik ateraten. Organuak garbitu eta elikatu egiten dira, euren beharra egiten jarraitu daian".

"Anti"

Non dago hausturea, ba? "Antibiotiko batek aurrera atera leike bizitza bat. Eta oso kalentura handirik badago, hartu egin beharko da zerbait. Baina galderea da: zein neurritan hartu behar dira? Kalenturea, adibidez, gure organismoak sortzen dauen defentsea da. Badira bakterio batzuk 38 gradutan ezin diranak ugaltu, eta ondorioz hil egiten diranak. Baina 36 gradutara jeisten badogu sukerra, bakterio horreek ugaltu egingo dira".

*"Energia bat daukagu
bizidun guztiok;
baita gaixotasuna
sortzen dauen
toxiko bat be"*

*"Ez dago gaixotasunik,
persona gaixoak baino,
bakotxak bere erara
eroaten dauelako
gaixotasuna"*

Homeoterapia Spagyrikoa eta medikuntza konbentzionala bateragarriak izan leitekez

*"Min badaukagu,
ibuprofenoa hartzen
dogu, baina
mina gero eta
kronikoagoa egiten da"*

Beste alde batetik, Derioko medikuak azpimarratu deusku medikuntza konbentzionalan erabiltzen diran botika guztiak edo gehienak "anti" dirala: antiinflamatorioak, antitermikoak, beherakoaren kontrakoak, antidepressiboak... Eta gaixoak gero eta kronikoagoak dirala. "Min euki ezkerro, ibuprofenoa hartzen dogu lasaitzeko. Baina min hori gero eta kronikoagoa egiten da, geure gorputzari ez deusagulako ixten mina kentzeko jarraitu behar deutsan bidetik joaten".

Karmeleren esanetan, Homeoterapia Spagyrikoa baliagarria da edozein gaixotasun tratetako, eta edozein personak hartu leike. Botikak naturalak dira, eta ez dauke toxikorik, ez albo-ondoriorik. "Ea garestia dan? Ba, hori zeure osasunari ipinten deusazun prezioaren arabera da. Medikuntza konbentzionalan erabiltzen diran botikak be garestiak dira, baina gu ez gara konturatzen horretaz, zati txiki bat bakarrik ordaintzen dogulako". Haren ustez, Homeoterapia Spagyrikoa eta haren botikak be egon beharko lirarteke Segurantzia Sozialaren barruan.

Gure erritmotik kanpo

Karmelek beti jardun gura izan dau medikuntzan. Baina karrerea amaitu ebanean, konturatu zan berak ez zituela personak ulertzen medikuntza konbentzionalak ulertzen zituan moduan. "Personak osotasun bat bezala ulertzen ditut; ez zatika. Eta beste metodo batzuen bila abiatu nintzan orduan". Hurbiletik ezagutu eban kasu baten bidez heldu zan Spagyriara. "Ume batek min eukan orpoan, eta arazoak zituan ondo zapaltzeko. Medikuek konponbide bat baino ez eutsien emon, ebakuntza egitea, baina gurasoek erabagi eben metodo honegaz saiatzea. Egun gitxitan joan jakon mina, eta barriro hasi zan ondo zapaltzen".

Urteak daroaz medikuntza mota honetan jarduten, eta, esan deuskuenez, gauzak asko aldatu dira bera hasi zanetik. "Lehen ez egoan ondo ikusita, baina jenteak gero eta kontzientziatzeno handiagoa hartu dau bere osasunaren alde, eta, gaur egun, medikuntza konbentzionalako profesionalek be ez

dabe hain eretxi gogorrik homoterapien gainean".

Medikuntza konbentzionalako botikek gero eta gaixo kronikoagoak bihurtzen gaituela pentsaten dau. "Zenbat eta botika gehiago hartu, orduan eta pozoi gehiago. Eta gorputza pozoituta badago, askoz arinago sortzen da mina. Eta gero eta okerrago dago gorputza".

Horri jagokonez, aitatu deusku Homeoterapia Spagyria erabiltzen daben gaixo askok, min eukenez, tratamendu konbentzionala ixtea erabagi dabela eta dagoeneko ez daukela minik. "Ez dogu orokorrean hausnarketa egiten. Gura dogun bakarra da min edo traba egiten deuskuna ahalik eta lasterren kentzea ganetik, gure eginbeharrak jarraitu ahal izateko". Egunerokotasunak eta betebeharrak oso azkar bizitzera behartzen gaituela aitatu deusagu. "Baina arazoa da gure erritmotik kanpo bizi garala", erantzun deusku berak.



Hiztegitxoak.eu webguneak euskaratik beste hainbat hizkuntzetarako norabidean eta alderantziz, hainbat oinarritzko hiztegitxo lortzek aukera eskaintzen du. Euskarara hurbiltzeko, beste hizkuntzetara hurbiltzeko, harremanetarako, elkar ezagutzarako, elkarren aitortzarako, probestu **hiztegitxoak.eu!**

Hizkuntza berri bat proposatu

Euskaratik

EUSKARA → هاسانية (HASSANIERA)	EUSKARA → DEUTSCH (ALEMANA)	EUSKARA → हिन्दी भाषा (HINDIA)
EUSKARA → ITALIANO (ITALIERA)	EUSKARA → DANSK (DANIERA)	EUSKARA → हिन्दी भाषा (HINDIA) (ahoskera)
EUSKARA → GJUHA SHQIPE (ALBANIERA)	EUSKARA → ÍSLENSKA (ISLANDIERA)	EUSKARA → LINGALA (LINGALA)
EUSKARA → LIMBA ROMÂNĂ (ERRUMANIERA)	EUSKARA → ČEŠTINA (TXEKIERA)	EUSKARA → 中文 (TXINERA)
EUSKARA → HRVATSKI (KROAZIERA)	EUSKARA → Български (BULGARIERA)	EUSKARA → 中文 (TXINERA) (ahoskera)
EUSKARA → РУССКИЙ (ERRUSIERA)	EUSKARA → Български (BULGARIERA) (ahoskera)	EUSKARA → SWAHILI (SWAHILIA)
EUSKARA → РУССКИЙ (ERRUSIERA) (ahoskera)	EUSKARA → PORTUGUÊS (PORTUGESA)	EUSKARA → SEEREER (SERERERA)
EUSKARA → POLSKI (POLONIERA)	EUSKARA → ΕΛΛΗΝΙΚΑ (GREZIERA)	EUSKARA → ދިވެހި (DARIJA)
EUSKARA → ENGLISH (INGESEA)	EUSKARA → ΕΛΛΗΝΙΚΑ (GREZIERA) (ahoskera)	EUSKARA → WOLOF (WOLOFERA)
EUSKARA → CASTELLANO (GAZTELANIA)	EUSKARA → ЈАХАНКЕ (JAHANKERA)	EUSKARA → GUARANI (GUARANIERA)
EUSKARA → FRANÇAIS (FRANTSESA)	EUSKARA → FULFULDE (FULA)	EUSKARA → CYMRAEG (GALESA)
EUSKARA → TÜRKÇE (TURKIERA)	EUSKARA → ТАМАЗИГТ (TAMAZIGHT)	EUSKARA → SLOVENČINA (ESLOVAKIERA)
EUSKARA → CATALÀ (KATALANA)	EUSKARA → اردو (URDUA)	EUSKARA → DIOLA (JOLA)
EUSKARA → GALEGO (GALIZIERA)	EUSKARA → اردو (URDUA) (ahoskera)	EUSKARA → RUNA SIMI (KITXUA)

Euskarara

هاسانية (HASSANIERA) → EUSKARA	DEUTSCH (ALEMANA) → EUSKARA	हिन्दी भाषा (HINDIA) → EUSKARA
ITALIANO (ITALIERA) → EUSKARA	DANSK (DANIERA) → EUSKARA	हिन्दी भाषा (HINDIA) (ahoskera) → EUSKARA
GJUHA SHQIPE (ALBANIERA) → EUSKARA	ÍSLENSKA (ISLANDIERA) → EUSKARA	

Hiztegitxoak.eu

Euskaltzaleen Topaguneak hiztegitxoak.eu webgunea jarri du martxan. Bertan, oinarritzko hiztegiak ipini dituzte eta aukera ematen da euskarazko hitzak beste hizkuntza batzuetan zelan esaten diren kontsultatzeko, eta alderantziz. Orotara, 35 hizkuntzako hitzak kontsulta daitezke. Errumaniera, txinera, hassaniera eta swahilia daude hizkuntza horien artean. Azaldu duten moduan, egitasmo honi esker euskara hizkuntza ezberdinetako hitzunen artean “zubi hizkuntza” izatea bultzatu nahi dute.

“Munduan 6.500 hizkuntza baino gehiago hitz egiten dira. Hizkuntzak kulturaren adierazle garrantzitsuenetakoak dira eta, beraz, munduko kultura aniztasunari eusteko, hizkuntzak zaindu behar ditugu”, adierazi dute. “Euskarak Euskal Herria du bizitoki bakarra eta, jakina denez, egoera gutxituan dago. Gainera, gurean beste hizkuntza ugari bizi dira, asko azken urteetan etorri diren pertsonen ekarriak. Aniztasuna, beraz, etxean daukagu. Bakoitzak bere hizkuntza zaindu eta erabil-

teaz gain, beste hizkuntza batzuk ere ikasiz gero, denok aberastuko gara. Eta bakoitzak bereari uko egin gabe, euskara izan dadila guztion arteko kohesio eta komunikazio hizkuntza”.

Euskaltzaleen Topaguneak hainbat urte daramatza euskara eta aniztasun gaiak jorratzen. Hiztegitxoak.eu webguneak pauso bat gehiago emango du norabide horretan, izan ere, haien ustez, hainbat esparrutan izan daiteke baliagarria, hala nola eskola eremurako.

Ezagutza eta aitortza

“Elkar harremanerako oinarritzko hiztegi hauekin elkarren arteko ezagutza eta aitortza bultzatu nahi da euskara erdigunean jarritz. Webgunearen bidez, 330 hitzetako oinarritzko hiztegia eskura daiteke eta inprimatu, egunerokotasunean erabiltzeko. Gainera, 35 hizkuntza horietariko batzuk gutxiturik dauden hizkuntzak dira”.

Bestalde, erabiltzaileek beste hizkuntza batzuetako oinarritzko hiztegiak txertatu ahalko dituzte webgunean, hori gero eta hizkuntza gehiagorekin elikatuz. Hiztegitxoak.eu webguneak Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren babesa jaso du.

Euskaltzaleen Topagunea 1997. urtean sortu zen eta Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroako 96 euskara elkarteak osatzen dute. Elkarrekin zein mugimenduen beraren helburuak euskararen erabilera sustatzea eta euskararekiko sentsibilizazioa bultzatzea dira. Horretarako hainbat esparru lantzen dituzte, esaterako haur eta gazteen aisialdia, kultura, tokiko hedabideak, mintzapraktika, eta erakundeak euskalduntzea eta sentibera-

MAS MENOS
Janari-denda
Prezio paregabeak
Bestorrene, 3 DERIO
670 60 70 41

HAUR-MODA
Tximeleta
Gernikako Arbola, 8 DERIO
94 454 14 35

Bar TRIPPY
ZURE GIRORIK ONENA
Gura baduzu ondo pasatu, musika ona entzun eta futbolekin jokatu, etorri zaitz Trippya, Deriara
Behoko Kalea Baxo
DERIO

Familia osorako kalitatezko arreta, zure esku
Zaindzu Berruz Logopedia Podologia Kiropraxia
clínica dental ZAINDUZ hortz klinika
Txoneri etorbidea, 9 - Lonsa | Arteaga erakina | 48160 DERIO
94 454 01 01 | 657 79 54 45
info@dentizaindus.com | www.dentizaindus.com

Lazkao Txiki eta Bittor Kapanaga

Éme barik eta emé barik

t: Juan Luis Goikoetxea / a: Aritz Albaizar

Iñaki Eguskizak dinosku –Berbalaguneko kafe-orduan– bera eta euskaltzale taldea Bittor Kapanagarekin batu zirala afaltzeko Txorierriko jatetxe baten eta Bittorrek pasadizo polita kontatu ebala. Behin Lazkao Txiki esan eutsala Kapanagari:

–Nola bizi gera Kampanaga?

–Ni ez naz Kampanaga gero! Ni Kapanaga naz!

Minutu batzuk garreanean, barriro Lazkao Txiki:

–Beraz, pozik bizi zera Oletako base-rrian Kampanaga?

–Bai, poz-pozik. Baina lehen argitu deusut hori: Ez naz Kampanaga; Kapanaga naz, éme barik.

–Neu bezela, hortaz, emé gabe! Izan be, biak ziran mutlitzaharrak.

Lazkao Txiki bertsolari handia euskal kulturaren jantzita dagoan edonork ezagutzen dau eta haren bertso lilurgarri asko dakiz buruz.

Bittor Kapanaga, oster, pentsalari legez da ezagun. Belen Ganak argitu deuskunez, Bittor 1985/86ko ikasturtean ekarri eban Txepetxa euskaltegiak Olentzeroren ganeko berbaldirako eta 1987/88an etnologia erakusketagaz batera hitzaldia emoten.

Bittor pentsalari euskaltzalea zan. Euskal kulturako pertsonaia ospetsuak joaten ziran haren Arabako Oleta base-rrira hausnarketa sakonetan murgiltzen: Oteiza eskultorea; Jon Lopategi bertsolari txapelduna nahiz Gontzal Mendibil kantaria. Kontatzen dau beronek, Gontzal honek, Bagare abestia hantxe Oletan sortu ebala. 1974ko Gabon bezpera zan –Gontzal 18 urteko– sutondoan jesarrita, berak gitarra eskuetan, Bittorrek lapitza:

Arabana bagare
Gipuzkun bagera
Xiberun bagire
ta Bizkaian bagara,
baita ere, Lapurdi ta Nafarran.

Aiko hemen eme bako Kapanagaren eta Lazkao Txikiren arteko anekdota gogorararria.



Txorierri
Rocio Astorkia Bordegaray
Kepa Herguedas Manso
Maria Conde Bilbao
Ainhoa Rodríguez Mella
Mitxine 6, behea - 48150 - Sondika (geltokiaren aurrean)
T.: 944 711 639 - Larrialdia: 670 985 885 - www.txorierri.com

Goiri'78 s.l.
Zerbitzu ofiziala
Izarza Pol.
48150 Sondika
Bizkaia
94 453 25 15
94 453 39 31

LIBRERIA SONDICA LIBURUDENDA
ARTE EDERRAK - ESKULANAK, E.A.
JESUS MANUEL LANDA ANTOLIN
Fotokopiak, koadernaketa, plastifikatuak,
prentsa, aldizkariak, liburuak,
papergintza eta eskulanak
Mikel Zarate, 2 - Tel. / Faxa: 94 453 16 77
48150 SONDICA (Bizkaia)

ASESORÍA
Luis Fernando Aguirre, s.l.
Mateo Bidaurrezaga, 1
Tfno.: 94 453 33 28 - Fax 94 471 06 28
48150 SONDICA (Bizkaia)

Etxeko sukaldaritza



Makailao freskoa, papillote eran

Maite Lekerika

Osagaiak (lau lagunentzat):

- 4 makailao zati (200 gramokoak)
- 12 Cherry tomate (garbituta)
- 4 ziza (tiratan moztuta)
- Orioa eta gatza

Pikillo-saltsea egiteko:

- Kipula txiki bat
- 6 pikillo piper
- 200 ml esnegain
- Orioa eta gatza

Prestetako area:

Tomateak eta zizak orio apur baten erregosiko doguz. Aluminio-paper bako-

txaren erdian makailao zati bat ipiniko dogu, eta hori orio apur batez igurtziko dogu. Gatza be botako deusagu. Makailaoaren gainean tomateak eta zizak ipiniko doguz. Aluminio-paperak tolestu eta pakete txikiak egingo doguz. Ondo itxita dagozala, labara sartuko doguz 200 gradutan eta han 20-25 minutu inguru eukiko doguz. Makailao zatiak paperetik atera eta baktxa plater baten ipiniko dogu. Pikillo-satsa bategaz lagunduko doguz.

Pikillo-saltsea: Kipulea oriotan erregosiko dogu. Pikillo piperrak eta esnegaina gehituko doguz. Horreek apur bat egosi eta irabiauko doguz. Behar dauen gatza botako deusagu saltseari.

Muskuilu gainerreak, holandar saltsagaz

Osagaiak: (lau lagunentzat):

- 24 muskuilu
- 3 porru
- Apio apur bat
- 3 gorringo
- Kopa bat ardao zuri
- 250 g gurina
- Koilarakada bat limoi-zuku
- Oliba orioa
- Gatza eta perejila

Prestetako area:

Muskuiluak garbituko doguz. Kazuela baten ardaa eta apioa ipiniko doguz eta muskuiluak bertan egosiko doguz, harik eta zabaltzen diran arte. Bestalde, porruak dadotan ebagi eta zartagin baten erregosiko doguz orio apur bat erabilita. Muskuiluen gainetik botako doguz. Muskuiluak erretilu baten ipiniko doguz. Gurina urtuko dogu. Zukua eta gorringoak harrotuko doguz eta gurina pixkanaka-pixkanaka joango gara gehitzen. Muskuiluak labara sartu eta gainerreko doguz. Perejila botako deusegu gainetik.



Jatetxea SAN ISIDRO
EUSKO OKULETAN ESPEZIALIZATUA ETA ETXERKO GOSTOGINTZA APARTA
ESKONTZAK, BATAIOAK, JAUNARTZEAK
Karta zerbitzua - Laneko zerbitzuak - Jantoki pribatuak
Jantoki bakoitzean 180 toki - Sukaldaritza tradizionala
Telefonoa 94 454 07 98 Mungialde etorbidea, 35
Fax 94 454 14 18 48160 DERIO

harategia - urdaitegia
MIGUEL
ESPEZIALITATEAK:
URDAIAZPIKOA
ETA GAZTA
Mikel Deuna, 7 * DERIO 48160 * T: 454 52 94

LOREGARBI **GARBIKETA ZERBITZUAK**
Garbi-ikatzak, orokorrean
Azarokomunitateak
Mantentze garbi-ikatzak
Bulegoak eta lokalak
Oliniko enpresen garbiketa
Ikastetxeak
Zaberrak
Besaide Plaza, 1 - B* Aldekone Tel: 94 406 49 92
48160 DERIO (Bizkaia) 656 712 443
loregarbi@euskalnet.net Fax: 94 406 49 93

t o k t a k
EGUNEKO MENUA
Iñerango platera
bigarren platera
postrea
ogia
edaria **9€**
Bestorrena 5, Behea 48160 DERIO
T: 94 454 55 55

Nire Autoocasion NA
IMPORTAZIOA ETA SALMENTA
GERNIKAKO ARBOLA 10 (TRASERA) 48160 DERIO-BIZKAIA
Mobilak: 686 97 06 41 - 649 10 77 12
Telefonoa-Fax: 94 454 51 92
www.nireautoocasion.com info@nireautoocasion.com

Leire Begoña
ILEAPAINDEGIA
Unisex ileapaindegia
Estetika
Orduetegi jarraitua
Laser-depilazioa
Mungialde etorbidea, 20 DERIO
T: 94 454 26 32

euskal herriko d-generazioa

aritz eta nagel
aikor! 2014ko urtarrilaren 20an



Gomendioak

LITERATURA: NAGUSIAK

- Arma, tiro, bammm!, Joan Mari Iri-goien.
- Egia esan, Peru Magdalena.
- Batzarra, gure gobernua, Pablo Sas-tre.
- Versus, Karlos Linazasoro.
- Txartel bat (des)herrira, Garazi Goia.
- Ez naiz ni, Karmele Jaio.

LITERATURA: UMEAK ETA GAZTEAK

- Orkestra lurtarra, Harkaitz Cano.
- Nire alabak ez dauka erremediorik, Antxiñe Mendizabal
- Zure denboraren truke, Uxue Alberdi.
- Albak 13 urte, Agustin Fernandez.
- Argazki albuma, Antton Kazabon.

MUSIKA

- Azukre koxkorak, Ruper Ordorika.
- Ez da amaiera, Gari.
- Uhinak, EH Sukarra.
- Mandoilek, Mandoilek.

Sudokua

						6	
		9					5
3	5		1		2		9
							8
		8				6	1
1	6					3	2
					1		
6	9		2			5	3
	2			7	3	9	

9	4	6	3	7	5	1	2	8
3	9	1	8	4	5	7	6	2
5	4	3	6	9	1	8	2	7
1	6	4	8	5	9	3	7	2
9	3	8	4	2	7	6	5	1
2	7	5	3	1	6	4	9	8
3	5	6	1	4	2	7	8	9
4	1	9	7	6	8	2	3	5
7	8	2	9	3	5	1	6	4

IAZI JATETKEA
Jata kalea, 2 – DERIO
Tel.: 944 54 29 56

HABAGITEGIA
URDAGITEGIA
IMAZ

MUNIZIALDE ETORBIDEA 2
TEL.FONO: 94 454 10 75

DERIO
Eskerrik asko
efortzeagaitik

OSTEOPATIA-ZENTROA
ORDEZKO TERAPIAK

Lasai

Luis M^a Asensio
Terapeuta naturopata

Larrabarri, 1 Ionja - 48160 DERIO
Tel: 94 454 10 28 - Sakelekoa: 655 74 24 69
osteopatialasai@gmail.com

Erakusketak

Sondika

- > "Custom sentimiento de libertad", Julian Redondoren argazkiak. Otsailaren 4tik 27ra, erakusketa gelan.

Derio

- > "Euskal pilota herriz herri". Otsailaren 4tik 25era, Kultur Birikan.

Hitzaldiak

Derio

- > Gatazken konponketa, gurasoei zuzenduta. Otsailaren 11n, 19:00etan, Kultur Birikan.
- > Bullying-a eta Cyberbullying-a, gurasoei zuzenduta. Otsailaren 18an eta 25ean, 19:00etan, Kultur Birikan.
- > Etxebide: zer da, zerbitzuak eta orientazio praktikoak. Otsailaren 26an, 19:00etan, Kultur Birikan.

Larrabetzu

- > Literaturaz berbetan: Garbiñe Ubedaren *Hobe isilik* liburua. Otsailaren 20an, 20:00etan, Anguleri Kultur Etxean. Udalak eta Arrekikili euskara elkarteak antolatuta.

Ikastaroak

Larrabetzu

- > Adimen emozionala. Otsailaren 17an, 18:30ean, Anguleri Kultur Etxean. Lehen Hezkuntzako ikasleen guraso-entzat.

Zamudio

- > Zen ikastaroa. Izena ematea: otsailaren 7a baino lehen, udaletxean.
- > Arku jaurtiketa. Otsailaren 14an, 19:00etan, Kultur Etxean. Izena ematea, Gazte Estazioan. Gezi Bide elkartearekin antolatuta.

Ikuskizunak

Derio

- > *Euskal pilotaren historia* ikus-entzunezkoa, Iñigo Gallagaren eskutik. Otsailaren 13an, 19:30ean, Kultur Birikan.
- > *Next Stop: Greenland* proiektzioa, Jon Goitia eta Iñaki Uriarteren eskutik. Otsailaren 20an, 19:30ean, Kultur Birikan. Udalak eta Untza mendi taldeak antolatuta.

Zamudio

- > Tor magoa. Otsailaren 8an, 11:30ean, liburutegian.



Irteerak

Sondika

- > Motxotegi eta Gaztelu. Otsailaren 16an, 09:00etan, eskolako parkingean. Izena ematea: otsailaren 3ra arte, liburutegian.

Derio

- > Alto Campoo. Otsailaren 23an, 07:30ean, Nagusien etxean. Untza mendi taldeak antolatuta.

Zamudio

- > Sagardotegi batera, otsailaren 16an Arroeta mendi taldearekin batera.
- > Sasimartxo, otsailaren 23an. Ibilbide bi: luzea egiteko, 08:30ean, Sabino Arana plazan; laburra egiteko, 09:30ean. Hamaketakoa, 11:00etan, San Tomas ermitan. Arroeta mendi taldearekin batera antolatuta.

Larrabetzu

- > PR-BI 254 "Larrabideak" gaueko ibilaldia. Otsailaren 15ean, 19:30, plazan.

Txapelketak

Sondika

- > Frontenis txapelketa, Goronda Beko kiroldegian, 11:30ean eta 12:15ean: final-lurrekoak, otsailaren 2an; eta finalak, otsailaren 9an.

Bestelakoak

Txorierri

- > Santa Ageda, otsailaren 4an. **Loiu:** 18:30ean, Eletxolerrri plazan; 18:45ean; Eletxolerrri iturrian; 19:00etan, Aurregoitin; 19:20ean, Gurenan; 19:35ean, Gure Etxean; 19:45ean, Hotelean; eta 20:00etan, Batzokian. **Zamudio:** 1996an jaiotakoak, herritik. **Lezama:** 19:30etik aurrera, Ekidazu abesbatza.

Derio

- > Sasimartxo. Otsailaren 23an, 17:00etan, Santimamiko landetan. Tximintx euskara elkarteak antolatuta.

ELORRIETA
INSTALACIONES

ETXE- ETA INDUSTRIA-ELEKTRIZITATEA

Unibe kalea, 12 behea Derio 48160
94 454 03 86

639 57 98 48 - 639 58 25 47

ASTIKENEMOTOR
www.ASTIKENEMOTOR.com

DERIO - 946 451 781

aldekone
hartz klinika
Tel.: 94 454 15 87

Anuska Prieto Aguilar
Odontologoa

Unibe 7, behea
48160 DERIO (Bizkaia)

-Especialitate guztiak zentro bakar batean
-Aurrekontuak doan
-Especialitatea: umeak

MARMOLGINTZA
GOYO

SUKALDE-GAINEKOAK OIRAK HILERRIAK

Ugaldeguren 1 ind. 18-8 nabes
48160 Derio, Bizkaia
T: 94 454 02 93 - Fax: 94 454 50 83

eleizalde
kafetegia

Lainomendi, 7
(Elizaren aurrean)

48160 DERIO
Tel.: 94 454 52 88

Aislamientos Derio

Tabikeak
Pladurrezko sabaiek eta apalategiak
Sabai erregistragarriak

Aiantza Ibaia plaza, 6 - 48160 Derio
T: 670 497 928 - F: 944 541 121
www.aislamientosderio.com

Isolamendu termiko eta akustikoa

TXORIERRIKO BERBALAGUNAK

txorierri.berbalaguna@gmail.com
635.75.35.95

Txorierriko Mankomunitatea:
94.454.03.50

Udal euskaltegia:
94.454.00.62

Txepetxa euskaltegia:
94.454.39.67

MINTZALAWOOD

**ZU ZARA
IZARRA!**

EZ ZAITEZ ATZEKO
HORIEKIN JOAN,
MARYLIN...

NIK
ZU GABE
EZIN...

BERAIEK DIRA
MINTZALAWOOD-EKO
IZARRAK, DICK.
EDO GERATU...
EDO,
ZATOZ ETA EGIN!

zatoz eta egin!

mintzalaguna euskaldunon mundua

Laguntzaileak:



TXORIERRIKO UDALA
EUSKALTEGIA

Babesleak:



Antolatzailea:



TXORIERRIKO
MANKOMUNITATEA



Marketin

Argitalpenak

teef
totoan



Komunikazioa

Ekitaldiak